

Jabetza industrial
Markei buruzko legeria

Propiedad industrial
Legislación sobre marcas

JABETZA INDUSTRIALA
MARKEI BURUZKO LEGERIA

PROPIEDAD INDUSTRIAL
LEGISLACIÓN SOBRE MARCAS

emeri ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

JABETZA INDUSTRIALA
MARKEI BURUZKO LEGERIA

PROPIEDAD INDUSTRIAL
LEGISLACIÓN SOBRE MARCAS

IGONE ALTZELAI ULIONDO
ROSA OTXOA-ERRARTE GOIKOETXEA
JOSU J. SAGASTI AURREKOETXEA
UPV/EHUko Merkataritza Zuzenbideko irakasleak

IRENE ALDASORO KATARAIN
Itzultzailea

JUAN KRUIZ IGERABIDE SARASOLA
UPV/EHUko Euskara Zerbitzua

ANA LETURIA NAVAROA
UPV/EHUko Zuzenbide Fakultateko irakaslea
Bildumaren koordinatzailea

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua
Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco
www.argitalpenak.ehu.es - editorial@ehu.es

Fotokonposizioa/Fotocomposición: Ipar, S. Coop.
Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

ISBN: 978-84-9860-577-8
Lege-gordailua/Depósito legal: BI - 2.950-2011

AURKIBIDEA



ÍNDICE

Prólogo. Idoia Mendia Cueva	18
Aurkezpena	27
Reglamento (CE) n.º 207/2009 del Consejo, de 26 de febrero de 2009, sobre la marca comunitaria	33
Título I. Disposiciones generales	42
Título II. Derecho de marcas	42
<i>Sección 1.ª</i> Definición y adquisición de la marca comunitaria	42
<i>Sección 2.ª</i> Efectos de la marca comunitaria	50
<i>Sección 3.ª</i> Uso de la marca comunitaria	54
<i>Sección 4.ª</i> La marca comunitaria como objeto de propiedad	56
Título III. La solicitud de marca comunitaria	64
<i>Sección 1.ª</i> Presentación de la solicitud y condiciones que deberá cumplir	64
<i>Sección 2.ª</i> Prioridad	68
<i>Sección 3.ª</i> Prioridad de exposición	70
<i>Sección 4.ª</i> Reivindicación de la antigüedad de marcas nacionales	72
Título IV. Procedimiento de registro	74
<i>Sección 1.ª</i> Examen de la solicitud	74
<i>Sección 2.ª</i> Búsqueda	76
<i>Sección 3.ª</i> Publicación de la solicitud	78
<i>Sección 4.ª</i> Observaciones de terceros y oposición	80
<i>Sección 5.ª</i> Retirada, limitación, modificación y división de la solicitud	82
<i>Sección 6.ª</i> Registro	86
Título V. Vigencia, renovación, modificación y división de la marca comunitaria	86

Hitzaurrea. Idoia Mendia Cueva	19
Aurkezpena	27
Kontseiluaren 207/2009 (EE) Erregelamendua, 2009ko otsailaren 26koa, Erkidegoko markari buruzkoa	33
I. titulua. Xedapen orokorrak	43
II. titulua. Marka-eskubidea	43
1. <i>atala.</i> Erkidegoko markaren definizioa eta hura lortzea.	43
2. <i>atala.</i> Erkidegoko markaren efektuak	51
3. <i>atala.</i> Erkidegoko markaren erabilera	55
4. <i>atala.</i> Erkidegoko marka jabetzaren objektu	57
III. titulua. Erkidegoko markaren eskaera.	65
1. <i>atala.</i> Eskaera aurkeztea eta bete beharreko baldintzak	65
2. <i>atala.</i> Lehentasuna	69
3. <i>atala.</i> Erakusketa-lehentasuna.	71
4. <i>atala.</i> Marka nazionalen antzintasuna aldarrikatzea.	73
IV. titulua. Erregistratzeko prozedura.	75
1. <i>atala.</i> Eskaera aztertzea.	75
2. <i>atala.</i> Bilaketa.	77
3. <i>atala.</i> Eskaera argitaratzea.	79
4. <i>atala.</i> Hirugarrenen oharrak eta aurkakotza	81
5. <i>atala.</i> Eskaera erretiratzea, murriztea, aldatzea edo zatitzea	83
6. <i>atala.</i> Erregistroa	87
V. titulua. Erkidegoko markaren indarraldia eta hura berritzea, aldatzea eta zatitzea	87

Título VI.	Renuncia, caducidad y nulidad	90
<i>Sección 1.^a</i>	Renuncia.	90
<i>Sección 2.^a</i>	Causas de caducidad	92
<i>Sección 3.^a</i>	Causas de nulidad	94
<i>Sección 4.^a</i>	Efectos de la caducidad y de la nulidad	98
<i>Sección 5.^a</i>	Procedimiento de caducidad y de nulidad ante la Oficina	100
Título VII.	Procedimiento de recurso	102
Título VIII.	Marcas comunitarias colectivas	108
Título IX.	Disposiciones de procedimiento	114
<i>Sección 1.^a</i>	Disposiciones generales	114
<i>Sección 2.^a</i>	Costas	122
<i>Sección 3.^a</i>	Información al público y a las autoridades de los Esta- dos miembros	126
<i>Sección 4.^a</i>	Representación	128
Título X.	Competencia y procedimiento en materia de acciones judi- ciales relativas a marcas comunitarias.	132
<i>Sección 1.^a</i>	Aplicación del Reglamento (CE) Núm. 44/2001.	132
<i>Sección 2.^a</i>	Litigios en materia de violación y de validez de las mar- cas comunitarias	134
<i>Sección 3.^a</i>	Otros litigios relativos a marcas comunitarias	146
<i>Sección 4.^a</i>	Disposición transitoria	146
Título XI.	Incidencias sobre el derecho de los Estados miembros.	148
<i>Sección 1.^a</i>	Acciones civiles sobre la base de varias marcas	148
<i>Sección 2.^a</i>	Aplicación del derecho nacional para la prohibición del uso de marcas comunitarias.	150
<i>Sección 3.^a</i>	Transformación en solicitud de marca nacional	152
Título XII.	La oficina	156
<i>Sección 1.^a</i>	Disposiciones generales	156
<i>Sección 2.^a</i>	Dirección de la Oficina	164
<i>Sección 3.^a</i>	Consejo de administración	166
<i>Sección 4.^a</i>	Aplicación de los procedimientos	168
<i>Sección 5.^a</i>	Presupuesto y control financiero	176
Título XIII.	Registro internacional de marcas	182
<i>Sección 1.^a</i>	Disposiciones generales	182
<i>Sección 2.^a</i>	Registro internacional basado en solicitudes de marca comunitaria y en marcas comunitarias.	182
<i>Sección 3.^a</i>	Registros internacionales que designan a la Comunidad Europea.	186

VI. titulua.	Uko egitea, iraungitzea eta deuseztatzea	91
1. <i>atala.</i>	Uko egitea	91
2. <i>atala.</i>	Iraungitzeko kausak	93
3. <i>atala.</i>	Deuseztapenerako kausak	95
4. <i>atala.</i>	Iraungitzearen eta deuseztatzearen efektuak.	99
5. <i>atala.</i>	Bulegoaren aurrean jarririko iraungitze- eta deuseztatze- prozedura	101
VII. titulua.	Errekurtso-prozedura	103
VIII. titulua.	Erkidegoko marka kolektiboak.	109
IX. titulua.	Prozedura-xedapenak.	115
1. <i>atala.</i>	Xedapen orokorrak	115
2. <i>atala.</i>	Kostuak	123
3. <i>atala.</i>	Informazioa jendearen eta estatu kideetako agintarien agerian jartzea.	127
4. <i>atala.</i>	Ordezkaritza	129
X. titulua.	Eskumena eta prozedura Erkidegoko markei buruzko ak- zio judizialen gaietan	133
1. <i>atala.</i>	44/2001 (EE) Erregelamendua aplikatzea	133
2. <i>atala.</i>	Erkidegoko marken urratze- eta baliozkotasun-gaietako auziak	135
3. <i>atala.</i>	Erkidegoko markei buruzko beste auzi batzuk	147
4. <i>atala.</i>	Xedapen iragankorra.	147
XI. titulua.	Estatu kideetako zuzenbidearen gaineko eraginak.	149
1. <i>atala.</i>	Marka batean baino gehiagotan oinarrituriko akzio zibilak	149
2. <i>atala.</i>	Zuzenbide nazionala aplikatzea Erkidegoko marken erabi- lera debekatzeko	151
3. <i>atala.</i>	Marka nazionalaren eskaera bilakatzea	153
XII. titulua.	Bulegoa	157
1. <i>atala.</i>	Xedapen orokorrak	157
2. <i>atala.</i>	Bulegoaren zuzendaritza	165
3. <i>atala.</i>	Administrazio-kontseilua	167
4. <i>atala.</i>	Prozedurak aplikatzea	169
5. <i>atala.</i>	Aurrekontua eta finantzen kontrola	177
XIII. titulua.	Marken nazioarteko erregistroa	183
1. <i>atala.</i>	Xedapen orokorrak	183
2. <i>atala.</i>	Erkidegoko marken eskaeretan eta Erkidegoko marketan oinarrituriko nazioarteko erregistroa	183
3. <i>atala.</i>	Europar Erkidegoa izendatzen duten nazioarteko erregis- troak.	187

Título XIV. Disposiciones finales	196
Anexo I.	202
Anexo II.	202
Directiva 2008/95/CE, de 22 de octubre, relativa a la aproximación de las legislaciones de los Estados miembros en materia de marcas	213
Anexo I	240
Anexo II	242
Ley 17/2001, de 7 diciembre, de Marcas	247
Exposición de motivos	248
Título I. Disposiciones generales	262
Título II. Concepto de marca y prohibiciones de registro	264
Capítulo I. Concepto de marca	264
Capítulo II. Prohibiciones absolutas	266
Capítulo III. Prohibiciones relativas	268
Título III. Solicitud y procedimiento de registro	274
Capítulo I. Solicitud de registro	274
Capítulo II. Procedimiento de registro	280
Capítulo III. Disposiciones generales sobre el procedimiento	288
Título IV. Duración, renovación y modificación de la marca registrada	300
Título V. Contenido del derecho de marca	302
Capítulo I. Efectos del registro de la marca y de su solicitud.	302
Capítulo II. Obligación de uso de la marca	308
Capítulo III. Acciones por violación del derecho de marca	310
Capítulo IV. La marca como objeto de derecho de propiedad.	316
Título VI. Nulidad y caducidad de la marca	326
Capítulo I. Nulidad	326
Capítulo II. Caducidad	330
Capítulo III. Disposiciones comunes	334
Título VII. Marcas colectivas y marcas de garantía	336
Capítulo I. Marcas colectivas	336
Capítulo II. Marcas de garantía	340
Capítulo III. Disposiciones comunes	346
Título VIII. Marcas internacionales	348

XIV. titulua. Azken xedapenak	197
I. Eranskina	203
II. Eranskina	203
2008/95/EE Direktiba, urriaren 22koa, estatu kideek marka-gaietan ditzuten legeriak hurbiltzeari buruzkoa	213
I. Eranskina.	241
II. Eranskina	243
17/2001 Legea, abenduaren 7koa, Markei buruzkoa	247
Zioen azalpena	249
I. titulua. Xedapen orokorrak	263
II. titulua. Marka kontzeptua eta erregistratzeko debekuak	265
I. kapitulua. Marka kontzeptua	265
II. kapitulua. Erabateko debekuak	267
III. kapitulua. Debeku erlatiboak	269
III. titulua. Erregistratzeko eskaera eta prozedura	275
I. kapitulua. Erregistratzeko eskaera	275
II. kapitulua. Erregistratzeko prozedura	281
III. kapitulua. Prozedurari buruzko xedapen orokorrak	289
IV. titulua. Marka erregistratuaren iraupena, berritzea eta aldaketa.	301
V. titulua. Marka-eskubidearen edukia	303
I. kapitulua. Marka erregistratzearen eta erregistro-eskaeraren efektuak	303
II. kapitulua. Marka erabiltzeko eginbidea	309
III. kapitulua. Marka-eskubidea urratzeagatik baliaturiko akzioak	311
IV. kapitulua. Marka jabetza-eskubidearen objektu	317
VI. titulua. Marka deuseztatzea eta iraungitzea	327
I. kapitulua. Deuseztatzea	327
II. kapitulua. Iraungitzea	331
III. kapitulua. Xedapen erkideak	335
VII. titulua. Marka kolektiboak eta berme-markak	337
I. kapitulua. Marka kolektiboak	337
II. kapitulua. Berme-markak	341
III. kapitulua. Xedapen erkideak	347
VIII. titulua. Nazioarteko markak	349

Título IX. Marcas comunitarias	354
Título X. Nombres comerciales	358
Disposiciones adicionales	360
Disposiciones transitorias	374
Disposición derogatoria	382
Disposiciones finales.	384
Anexo	386
Real Decreto 687/2002, de 12 de julio, por el que se aprueba el Reglamento para la ejecución de la Ley 17/2001, de 7 de diciembre, de Marcas	393
Artículo único. Aprobación del Reglamento para la ejecución de la Ley 17/2001, de 7 de diciembre, de Marcas	400
Disposición derogatoria	400
Disposiciones finales.	400
Reglamento para la ejecución de la Ley 17/2001, de 7 de diciembre, de Marcas	403
Título I. Solicitud de registro	404
Título II. Procedimiento de registro	416
Capítulo I. Examen de forma	416
Capítulo II. Examen de licitud	422
Capítulo III. Búsqueda de anterioridades y publicación de la solicitud	424
Capítulo IV. Oposiciones y observaciones de terceros	426
Capítulo V. Examen de fondo y resolución del expediente	432
Capítulo VI. Registro de la marca	436
Título III. Renovación de la marca	440
Título IV. Transmisiones, licencias y otras modificaciones de derechos	446
Título V. Renuncia de la marca	454
Título VI. Marcas colectivas y de garantía y nombres comerciales	456
Título VII. Marcas internacionales y comunitarias	460
Título VIII. Disposiciones generales sobre los procedimientos	464
Capítulo I. Modificación de la solicitud o registro y rectificación de errores	464
Capítulo II. División de la solicitud	472
Capítulo III. Restablecimiento de derechos	474

IX. titulua. Erkidegoko markak	355
X. titulua. Izen komertzialak.	359
Xedapen gehigarriak.	361
Xedapen iragankorrak.	375
Xedapen derogatzailea	383
Amaierako xedapenak.	385
Eranskina	387
687/2002 Errege Dekretua, uztailaren 12koa, Markei buruzko 2001eko abenduaren 7ko 17/2001 Legea exekutatzeko Erregelamendua onesten duena	393
Artikulu bakarra. Markei buruzko 2001eko abenduaren 7ko 17/2001 Legea exekutatzeko Erregelamendua onestea	401
Xedapen derogatzailea	401
Amaierako xedapenak.	401
Markei buruzko 2001eko abenduaren 7ko 17/2001 Legea Exekutatzeko Erregelamendua	403
I. titulua. Erregistratzeko eskaera	405
II. titulua. Erregistratzeko prozedura.	417
I. kapitulua. Forma aztertzea	417
II. kapitulua. Zilegitasuna aztertzea	423
III. kapitulua. Aurrekotasunak bilatzea eta eskaera argitaratzea	425
IV. kapitulua. Hirugarrenen aurkakotzak eta oharrak	427
V. kapitulua. Edukia aztertzea eta espedientea ebaztea	433
VI. kapitulua. Markaren erregistroa.	437
III. titulua. Marka berritzea	441
IV. titulua. Eskualdaketak, lizentziak eta beste eskubide-aldaketa batzuk	447
V. titulua. Markari uko egitea.	455
VI. titulua. Marka kolektiboak, berme-markak eta izen komertzialak.	457
VII. titulua. Nazioarteko eta Erkidegoko markak.	461
VIII. titulua. Prozedurei buruzko xedapen orokorrak	465
I. kapitulua. Eskaera zein erregistroa aldatzea eta hutsegiteak zuzentzea	465
II. kapitulua. Eskaera zatitzea.	473
III. kapitulua. Eskubideak berrezartzea	475

Capítulo IV. Notificaciones y comunicaciones	478
Capítulo V. Registro de marcas e información al público	482
Capítulo VI. Representación.	492
Disposiciones adicionales	496
Disposiciones transitorias	498
Instrumento de ratificación del Tratado de Singapur sobre Derecho de Marcas, hecho en Singapur el 27 de marzo de 2006.	505
Tratado de Singapur sobre el Derecho de Marcas, hecho en Singapur el 27 de marzo de 2006	506
Reglamento del Tratado de Singapur sobre el Derecho de Marcas	562
Resolución de la Conferencia Diplomática Suplementaria al Tratado de Singapur sobre el Derecho de Marcas y a su Reglamento.	584
LÉXICO	597

IV. kapitulua.	Jakinarazpenak eta adierazpenak	479
V. kapitulua.	Marken erregistroa eta informazioa jendearen agerian jartzea	483
VI. kapitulua.	Ordezkaritza	493
Xedapen gehigarriak		497
Xedapen iragankorrak		499
2006ko martxoaren 27an Singapurren egindako Marka Zuzenbideari buruzko Singapurko Tratatu berresteko Tresna		505
Marka Zuzenbideari buruzko Singapurko Tratatu, 2006ko martxoaren 27an egina		507
Marka Zuzenbideari buruzko Singapurko Tratatuaren Erregelamendua		563
Marka Zuzenbideari buruzko Singapurko Tratatuaren eta haren Erregelamenduaren Konferentzia Diplomatiko Osagarriaren ebazpena		585
LEXIKOA		593

Prólogo

En esta nueva ocasión en que me toca prologar la publicación de un ejemplar de la colección «Legeak», asistimos ya a la del volumen número 12 titulado: *Propiedad Industrial y legislación sobre marcas*, lo que constituye claramente una consolidación de esta colección, que es fruto del espíritu de colaboración entre este Departamento de Justicia y Administración Pública y la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea.

Este volumen completa un repaso a una legislación que en el ámbito mercantil es esencial, como es la propiedad industrial y el Derecho de marcas, que tiene una especial dificultad por tratarse de un ámbito de gran relevancia económica y afectar, en igual medida, al mercado industrial. Los autores han mostrado un gran coraje al introducirse en un sector de elevada producción normativa y, al mismo tiempo, complejo por la temática a la que va dirigida y que, por ende, tiene un gran componente internacional, como lo demuestra la selección de los textos que se incluyen en este volumen.

Hay que destacar también la doble importancia de este tipo de ediciones: por una parte, la importancia de la selección de los textos relevantes en un área concreta del Derecho y del Ordenamiento jurídico en general y, en segundo lugar, proceder a la traducción del texto, con lo que ello conlleva de dificultad en la definición de los términos y conceptos. Esta traducción de materias muy específicas del Derecho tiene esa especial complejidad pero, al mismo tiempo, provocará en los próximos años un incremento exponencial en la utilización del euskera en ámbitos específicos del Derecho o, cuando menos, con esta finalidad es con la que los poderes públicos impulsamos, con la colaboración de la Universidad del País Vasco, este tipo de trabajos. Así, este Departamento mantiene un convenio con la Universidad que sustenta estos trabajos, aportando la Universi-

Hitzaurrea

«Legeak» bildumako ale berri honen hitzaurrea egitea egokitu zaidan honetan, liburuki honek bilduma erabat finkatzen duela esan dezaket, jada 12. liburukia delako. *Industria-jabetza eta marken buruzko legedia* izenburua daraman lan hau Justizia eta Herri Administrazio Sailaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko lankidetzaren emaitza da.

Liburuki honek legediaren errepaso egiten du, industria-jabetza eta marken eskubidea bezala, merkataritza arloan ezinbestekoa dela kontuan hartuta. Aparteko zailtasuna du, garrantzi ekonomiko handiko arloa delako, eta neurri berean, industria-merkatuari eragiten diolako. Egoizpen arauemaile handiko sektore batean sartzean, egileek adore handia erakutsi dute. Izan ere, liburuki honetan jasotako testuek erakutsi bezala, gaia konplexua da, eta nazioartekotasunak indar handia du.

Horrez gain, mota honetako argitalpenek garrantzi bikoitza dutela nabarmendu behar da: alde batetik, Zuzenbidearen arloan, eta, oro har, Ordenamendu Juridikoaren arloan gailentzen diren testuak aukeratzea garrantzitsua delako; eta bestetik, testuaren itzulpen-lanak terminoen eta kontzeptuen definizioan zailtasuna eragiten duelako. Zuzenbidearen arloko gai espezifikoen hauen itzulpenak konplexutasun berezia du, baina, aldi berean, etorkizunean Zuzenbidearen arlo espezifikoean euskararen erabilera areagotzen laguntzen du; hori da, behintzat, botere publikoek Euskal Herriko Unibertsitatearekin elkarlanean mota honetako lanak sustatzearen xedea. Sail honek hitzarmena du lan hauek egiten dituen unibertsitatearekin. Euskal Herriko Unibertsitateak giza kapitala eta ezagutza akademiko espezializatua jartzen ditu, euskarazko itzulpen-lanetan urte askoko

dad del País Vasco el capital humano y el conocimiento académico especializado, consolidado en unos equipos que llevan ya varios años trabajando en la materia de la traducción al euskera, y el Departamento de Justicia y Administración Pública la financiación para poder llevarlo adelante.

Esta obra se puede dividir en tres grandes bloques, un bloque de Derecho Nacional, un bloque de Derecho Comunitario y un bloque de Derecho Internacional, lo que demuestra la agudeza de los autores en la selección de los textos legales que conforman la base esencial del Ordenamiento jurídico en la materia.

En relación con la inclusión de la normativa comunitaria, efectivamente una obra de estas características, que tiene una voluntad de abarcar los elementos esenciales del sector, no podría haber quedado completa sin una visión general de la normativa comunitaria que, sobre la materia, se encuentra en la actualidad en vigor. Habiendo incluido los autores las dos normas esenciales de dicho Ordenamiento, el Reglamento 207/2009 del Consejo, de 26 de febrero de 2009, sobre la marca comunitaria y la Directiva 2008/95/CE, de 22 octubre, relativa a la aproximación de las legislaciones de los Estados miembros en materia de marcas. Se dan por tanto las dos perspectivas: en primer lugar, la armonización de las normas reguladoras de la propiedad industrial, a través de las Directivas que establecieron la obligación a los Estados miembros de adecuar sus leyes a los parámetros de protección establecidos en el instrumento comunitario y, en segundo lugar, el establecimiento, mediante la utilización de reglamentos comunitarios de obligado cumplimiento, de un Derecho único que constituye la protección comunitaria de los bienes de la Propiedad Industrial que, al propio tiempo, coexiste con la protección territorial conferida por los ordenamientos nacionales.

En cuanto a la parte internacional de esta edición, este volumen aporta, respecto de otros textos, una selección hecha teniendo en cuenta el gran componente internacional de este sector, con gran relación con la legislación estatal. Se incluye, como elemento esencial, el Tratado de Singapur sobre el Derecho de marcas. Este tratado fue adoptado, el 27 de marzo de 2006, por una Conferencia Diplomática de la Organización Mundial de la Propiedad Intelectual, celebrada en Singapur. El objetivo de este Tratado es el de simplificar y armonizar los procedimientos administrativos, en relación con las solicitudes nacionales y regionales de marcas y la protección de éstas. El Tratado entró en vigor, con carácter general, el 16 de marzo de 2009 y en la actualidad son 24 las partes del Tratado. Este Tratado fue ratificado por España en 2009 (muy acertadamente, los autores, han decidido incorporar a este volumen el instrumento de ratificación de España) y, en consecuencia, quedó incorporado automáticamente al Derecho español.

eskarmentua duten taldeak bermatuta, eta Justizia eta Herri Administrazio Saila, berriz, lan hori finantzatzeaz arduratzen da.

Obra hau hiru multzo handitan bana daiteke: Zuzenbide Nazionalaren multzoa, Erkidegoko Zuzenbidearen multzoa eta Nazioarteko Zuzenbidearen multzoa. Horrek egileek Ordenamendu Juridikoaren oinarria osatzen duten testu legalak aukeratzeko duten zorroztasuna erakusten du.

Erkidegoko araudiaren sartzearekin lotuta, ezaugarri hauetako obra batek sektoreko ezinbesteko elementuak hartzeko nahia du. Gainera, gaur egun indarrean dagoen erkidegoko araudiaren ikuspegi orokorrik gabe, ezingo litzateke obra osatu. Egileek Ordenamendu horretako funtsezko bi arauak gaineratu dituzte, erkidegoko markari buruzko Kontseiluaren 2009ko otsailaren 26ko 207/2009 Araudia eta marka-gaietako Estatukideen legedietara hurbiltzeari buruzko urriaren 22ko 2008/95/CE Zuzentaraua. Beraz, bi ikuspegiak ematen dira: alde batetik, industria-jabetzaren arau erregulatuzaileen harmonizazioa, Estatuei legeak erkidegoko tresnan zehaztutako babes-parametroetara egokitzera behartu zituzten Zuzentarauen bidez; eta bestetik, nahitaez bete beharreko erkidegoko araudiak erabilia, Eskubide bakar bat zehaztea, ordenamendu nazionalak emandako lurralde-babesarekin batera, erkidegoan Industria Jabetzako ondareak babesteko.

Argitalpen honen nazioartekotasunari dagokionez, liburukiak beste testu batzuk eskaintzen ditu; hain zuzen ere, sektore honen nazioartekotasun-ezaugarria kontuan hartuta eta estatuko legediarekin lotuta aukeratu den testu sorta bat da. Ezinbeste elementu gisa, marka-eskubideari buruzko Singapurko Ituna jaso da. 2006ko martxoaren 27an sinatu zen, Singapurren eginiko Jabetza Intelektualaren Munduko Erakundearen Biltzar Diplomatiko batean. Itun honen helburua nazioko eta eskualdeko marka- eta babes-eskaerekin lotutako administrazio-prozedurak sinplifikatzea eta harmonizatzea da. Ituna 2009ko martxoaren 16an jarri zen indarrean, eta, gaur egun, 24 parte ditu. 2009an, Espainiak Itun hau berronetsi zuen (egileek, zuhurki, Espainiaren berrespen-tresna liburuki honetan gehitzea erabaki dute), eta, ondorioz, automatikoki Espainiako Zuzenbideari atxiki zitzaion.

Por último, en el ámbito normativo nacional los autores han escogido, para formar parte de este volumen, la Ley 17/2001, de 7 diciembre, de Marcas, y el Real Decreto 687/2002, de 12 de julio, por el que se aprueba el Reglamento para la ejecución de esta ley.

La Ley de marcas, aprobada en el año 2001, tiene ya un amplio recorrido normativo y jurisprudencial en el Estado, habiendo constituido un hito muy relevante en el momento de su promulgación y permaneciendo en el momento actual en vigor.

En cuanto a la relevancia de la marca en nuestro Ordenamiento jurídico, según la normativa que se incluye en este volumen y mediante una definición relativamente sencilla, la marca es el bien inmateral constituido por un signo susceptible de representación gráfica, que sirve para distinguir en el mercado los productos o servicios de una empresa de los de otras

La función primordial de la marca es la distintiva, de los productos o servicios de una empresa, de los idénticos o similares ofrecidos en el mercado por otras empresas. Por ello, no puede ser marca un signo que carezca de fuerza o capacidad distintiva, o bien que la pierda de forma sobrevenida.

Junto a esta función principal, la marca puede cumplir diferentes funciones, algunas de modo absoluto y otras con carácter relativo, lo que demuestra la gran relevancia de esta normativa en el sector industrial y comercial:

Puede cumplir una función publicitaria, al favorecer la colocación y promoción del producto o servicio marcados, entre sus potenciales adquirentes y usuarios. Consecuencia directa de esta función es la «condensación», por la marca, del prestigio (*goodwill*) del producto o servicio y, por efecto directo, el de su fabricante o distribuidor.

La marca también puede cumplir una función indicativa, del nivel de calidad de los productos o servicios que distingue. Esta función justifica que, su titular, pueda oponerse a la ulterior comercialización por terceros de productos que, habiendo sido introducidos en el mercado por él o con su consentimiento, hayan experimentado modificaciones o alteraciones en sus características (art. 36.2 LM).

La marca, también puede indicar el origen empresarial del producto o servicio distinguido. Sin embargo, esta función, puede no ser cumplida en ciertos casos; en especial cuando su uso sea licenciado aisladamente (art. 48 LM) o su titularidad cedida, con independencia de la totalidad o parte de la empresa (arts. 46.2, 47 LM).

El derecho sobre la marca, como derecho subjetivo (conjunto unitario de facultades, obligaciones, cargas y acciones), nace por virtud del Registro del sig-

Azkenik, nazioko esparru arauemaileari dagokionez, egileek Markei buruzko abenduaren 7ko 17/2001 Legea eta lege hori betearazteko Araudia onartzen duen uztailaren 12ko 687/2002 Errege Dekretua aukeratu dituzte liburuki honetan sartzeko.

2001ean onartutako Marken Legeak ibilbide arauemaile eta jurisprudenzial zabala du jada Estatuan; bere promulgazioa gertaera gogoangarria izan zen eta orain arte indarrean mantendu da.

Markaren garrantziari dagokionez, liburuki honetan jasotako araudiaren arabera, eta definizio simple bat erabilita, gure Ordenamendu Juridikoan, marka ondasun ukiezin bat da. Grafikoki irudika daitekeen zeinu batek osatzen du, eta merkatuan, enpresen produktu eta zerbitzuak bereizteko balio du.

Markaren funtzio nagusia enpresa baten produktu eta zerbitzuak merkatuan beste enpresa batzuek eskaintzen dituzten produktu eta zerbitzu berdinekiko edo antzekoekiko bereiztea da. Horregatik, marka bat ezin daiteke indarrrik edo bereizteko gaitasunik ez duen edo berehalakoan galtzen duen zeinu bat izan.

Funtzio nagusi horrekin batera, markak hainbat funtzio bete ditzake; horietako batzuk erabat, eta beste batzuk, berriz, erlatiboki. Horrek araudiak industria- eta merkataritza-sektorean garrantzi handia duela erakusten du.

Publizitate-funtzioa izan dezake, eskuratzailer eta erabiltzaileen artean merkatutako produktu eta zerbitzuak ezartzen eta sustatzen laguntzen duelako. Funtzio horren ondorio zuzena prestigioaren, produktu edo zerbitzuaren, eta ondorioz, bere fabrikatzaile edo banatzailearen prestigioaren (*goodwill*) markagatiko «kondentsazioa» da.

Markak funtzio adierazgarria ere izan dezake; alegia, bereizten dituen produktu eta zerbitzuen kalitate-maila adieraz dezake. Funtzio horrek justifikatzen duena zera da, titularra hirugarrenen bidez produktuak saltzearen aurka ager daitekeela; izan ere, berak merkatuan sartu ez baditu edo bere baimenik gabe sartu badira, produktuen ezaugarriek aldaketak jasan ditzakete (MLren 36.2. art.).

Markak produktu edo zerbitzuaren enpresa-jatorria ere adieraz dezake. Gerta daiteke, ordea, kasu batzuetan funtzio hau ez betetzea; bereziki bere erabilera bakanki baimentzen bada (MLren 48. art.) edo bere titulartasuna lagatzen bada, enpresa osoa edo parte bat kontuan hartu gabe (MLren 46.2. eta 47. art.).

Markaren gaineko eskubidea, eskubide subjektibo gisa (gaitasunen, bete-beharren, kargen eta ekintzen multzo unitarioa), zeinuaren Erregistroaren bidez

no que la forma en el Registro de Marcas, de la Oficina Española de Patentes y Marcas (OEPM), a favor de su titular. El registro de la marca es la expresión formal de su concesión, a favor de su solicitante. En prueba de ello el Estado, a través de la OEPM, expide a su favor el correspondiente título de marca o de nombre comercial (art. 22.4 LM). Se trata por tanto de un derecho que, con toda claridad, guarda eficacia desde su Registro, siendo por lo tanto la regulación de este registro esencial en su funcionamiento.

Valga este rápido repaso sobre el contenido de este libro, repito, de gran importancia económica en el ámbito industrial, para poner de manifiesto el gran interés que tiene la traducción realizada. Espero y deseo que esta colaboración siga dando sus frutos en el futuro, y que podamos ampliar los ámbitos jurídicos en los que va prosperando la terminología jurídica en euskera.

Una última felicitación para todo el equipo que hace posible esta colección, tanto en la Universidad del País Vasco como en el Gobierno.

Idoia MENDIA CUEVA
Consejera de Justicia y Administración Pública
Vitoria-Gasteiz, 2 de mayo de 2011

sortzen da. Erregistro hori Espainiako Patente eta Marken Bulegoaren Marka Erregistroan egiten da, titularraren alde. Markaren erregistroa eskatzaileari egiten zaion lagapenaren adierazpen formala da. Horren froga gisa, Estatuak, Espainiako Patente eta Marken Bulegoaren bidez, marka-izena edo merkataritza-izena igortzen du (MLren 22.4. art.). Argi eta garbi, eraginkortasuna duen eskubide bat da, eta, beraz, Erregistroa ezinbestekoa da markaren funtzionamendua erregulatzeko.

Liburu honen edukiak industrian garrantzia ekonomiko handia duela kontuan hartuta, errepaso azkar honek egindako itzulpenaren interesa agertu nahi du. Lankidetzaren etorkizunean fruituak ematen jarraitzea, eta euskarazko terminologiak aurrera egin ahala, esparru juridikoak zabaltzen joatea espero dut.

Azkenik, Euskal Herriko Unibertsitatean eta Jaurlaritzan bilduma hau posible egiten duen talde osoa zoriondu nahiko nuke.

Idoia MENDIA CUEVA
Justizia eta Herri Administrazio sailburua
Gasteizen, 2011ko maiatzaren 2an

Aurkezpena

Bildumako 12. ale honek markaren babesa bermatzen duten arau nagusien itzulpena jasotzen du. Arauok zeinu bereizgarrien araubide juridikoa osatzen dute; alegia, jabetza industrialaren zuzenbidearen arlo nagusietariko bat. Jabetza-mota horri buruzko legeria ematea Estatuaren eskumen eskusiboa da (ikus Espainiako Konstituzioaren 149.1.9 artikulua). Hala ere, jabetza industrialeko gaiek nazioarteko merkataritzan dituzten inplikazioengatik, badira nazioarte-mailako beste arau batzuk estatuak nahitaez aintzat hartu beharrekoak. Horiek ere jaso ditugu.

Europar Batasunari dagokionez, bada Direktiba bat (*2008/95/EE Direktiba, urriaren 22koa, estatu kideek marka-gaietan dituzten legeriak hurbiltzeari buruzkoa*). Haren helburua estatu kideetan markei aplikatzen zitzaizkien legeriek izan ditzaketen desberdintasunak ezabatzea da. Desberdintasun horiek salgaien zirkulazio-askatasuna eta zerbitzuak emateko askatasuna oztoka dezakete eta merkatu bateratuan lehiatzeko baldintzak faltsutu. Beraz, premiazkoa da neurri batean legeria horiek hurbiltzea barne-merkatuaren funtzionamendu ona bermatzeko. Ez da beharrezkotzat jotzen legerien hurbilketa erabatekoa izatea, baina bai, gutxienez, barne-merkatuaren funtzionamenduan zuzenean eragiten duten arau nazionalak gerturatzea.

Eremu honetan bada europar erregelamendu bat ere (hau da, *Kontseiluaren 207/2009 (EE) Erregelamendua, 2009ko otsailaren 26koa, Erkidegoko markari buruzkoa, eta bere I. eta II. Eranskinak*), kontuan izan beharrekoa enpresentzat eskaintzen dituen konponbide eta abantailengatik. Erregelamendu horrek aurreko beste bat ordezkatu du (*Kontseiluaren 40/94 (EE) Erregelamendua, 1993ko abenduaren 20koa, Erkidegoko markari buruzkoa*). Aurrekoari funtsezko zenbait aldaketa egin ondoren, arrazionaltasun eta argitasun handiago baten izenean, komenigarria ikusi zen erregelamendu berri bat egitea.

Europar Batasunaren helburutariko bat jarduera ekonomikoak modu harmoniatsuan garatzea eta mugarik gabeko barne-merkatu bat osatzea da. Horrek berekin dakar salgaiak libre zirkulatzeko eta zerbitzuak libre emateko oztopoak kendu behar izatea eta lehia ez faltsutzeko arauak ezartzea. Testuinguru honetan, enpresek helburu horietarako behar dituzten tresna juridikoen artean, bereziki aipagarriak dira markak. Enpresek beren produktuak edo zerbitzuak Europar Erkidego osoan, estatu barruan bezala, berdin-berdin identifikatzea ahalbidetuko dieten tresnak behar dituzte. Horrela, markei buruzko Europar Erkidegoko araubidearen bitartez, enpresek, prozedura bakar baten arabera, era bereko babesa eta Europar Erkidego osoan efektuak dituzten markak eskuratzeko modua daukate.

Legeria nazionalen hurbiltzeak ezin ditu desagerrarazi estatu kideetako legeriek beren lurraldean marken titularrei ematen dieten eskubideak. Baina enpresek beren jarduera ekonomikoa barne-merkatu osoan trabarik gabe burutu ahal izateko, beharrezkoak dira Europar Erkidegoko zuzenbideak arauturiko neurriak ere: batetik, markak, eta, bestetik, beroriei dagozkien neurri administratiboak exekutatzen diren erakunde bat. Horixe da Barne-merkatua Harmonizatzeko Bulegoa. Erakunde teknikoki independentea da, nortasun juridikoa du eta autonomia administratiboa eta finantzakoa. Bulegoak erregelamenduak esleitzen dizkion exekuzio-ahalmenak baliatzen ditu.

Bestalde, nazioarte-mailan, Europar Batasunetik kanpoko eremu zabalago batean, Marka Zuzenbideari buruzko Singapurko Tratatuak dugu, berari dagozkion tresna juridikoekin batera (ikus *Marka Zuzenbideari buruzko Singapurko Tratatuak, 2006ko martxoaren 27an egindakoa, Marka Zuzenbideari buruzko Singapurko Tratatuaren Erregelamendua, Marka Zuzenbideari buruzko Singapurko Tratatuaren eta haren Erregelamenduaren Konferentzia Diplomatiko Osagarriaren ebazpena eta 2006ko martxoaren 27an Singapurren egindako Marka Zuzenbideari buruzko Singapurko Tratatuak berresteko Tresna*).

Tratatu hori jabetza intelektuala mundu erakundearen kide diren estatuek hitzartu zuten. Markak erregistratzeko eta lizentziak emateko prozedurak harmonizatzen ditu, marken jabeek eta estatuetako administrazio publikoek zerbitzu eraginkorragoak izan ditzaten, egungo baliabide teknologikoak erabiliz. Tratatuak esparru uniforme bat eratzen du markadun produktuetan inbertitzen duten agente ekonomikoentzat. Markadun produktuen industrian izandako garapenaren ondorioa da eta produktuak bereizteko egiten diren inbertsioentzat ikuspegi berri bat ematen du. Marka bat sortzeak sormena garatzea eta inbertsio baliotsuak egitea eskatzen duenez, enpresei egindako esfortzuen babesa eskaini behar zaie. Helburu horrekin, Singapurko Tratatuak marka-bulegoentzako arau

berriak aurrakusten dira, komunikazio elektronikoen abantailak kontuan izanik. Gainera, araubide dinamikoko bat ezartzen da, azterketa berezi bat aurrakustentzen duena, nazioarte-mailan marka-jabeen interesak babesteko.

Azkenik, estatu-mailan, espainiar legea dugu (*17/2001 Legea, abenduaren 7koa, Markei buruzkoa*). Lege horrek aurreko beste bat ordezkatu du. Kontua da Konstituzio Auzitegiaren epai bat bete beharrak, nazioarte-mailako konpromiso eta eginbideek eta gizarteko egoera berrietara egokitzeko komenigarritasunak lege berri bat egitea eskatzen zutela.

Konstituzio Auzitegiaren 1999ko ekainaren 3ko 103/1999 epaian, jabetza industrialaren arloan, autonomia-erkidegoei eta Estatuari dagozkien eskumenak zehaztu ziren. Epai horren ondorioak legean jaso dira, administrazioen arteko eskumenen banaketa zehaztuz. Horrekin, marken erregistroaren erabiltzaileei estaldura egokia ematea eta zeinu bereizgarriek duten jabetza bereziaren babesa eskuratu nahi dutenei bidea erraztea nahi izan da.

Legearen beste xede bat nazioarte-mailako konpromisoak betetzea izan da, Europar Erkidegoan eta, harago, nazioartean ezarritako harmonizazioarekin bat eginez. Ondorioz, Europar Erkidegoko arauak so eginez ezarritako aldaketek zenbait alde ukitu dituzte: markaren kontzeptua, markaren erregistroa ukatzeko eta deuseztatzeko kausen formulazioa, marka-eskubidearen agortzea (Europar Erkidegoaren eremura hedatu da), preskripzioa (tolerantziak eragindako preskripzioaren figura sartu da), marka erabiltzeko eginbidea eta eginbide hori ez betetzeagatik ezarritako zehapenak. Europar erregelamenduak Erkidegoaren lurralde osoan efektuak dituen arren, estatu kideei ez die ezartzen marka nazionalak Europar Erkidegoko markari hurbiltzeko arauak emateko eginbiderik. Baina aipaturiko gerturatze hori desiragarria da. Ez litzateke bidezkoa izango Espainian efektu berdinak sortzen dituzten bi titulu araudi gutzit desberdinen mende egotea. Horregatik, lege honen arau asko Erregelamendu horren ondorio dira.

Europar Erkidegotik kanpo, nazioartean egin diren harmonizazio-ahaleginak ere kontuan hartu ditu lege honek, zehazki *Marken Nazioarteko Erregistroari buruzko 1989ko ekainaren 27ko Madrilgo Adostasunaren Protokoloa, Merkataritzarekin erlazionaturiko jabetza intelektualeko eskubideen alderdiei buruzko Akordioa, Merkataritzaren Mundu Erakundea eratzen duen 1994ko apirilaren 15eko Akordioa*, eta *Marka Zuzenbideari buruzko Tratatu* eta haren *Erregelamendua*, 1994ko urriaren 27koak.

Nazioartera egokitzeko egindako aldaketen artean, aipagarriak dira nazioarteko marken inguruko erreformak: Onartzen da eskaera oinarritu ahal izatea markaren erregistro nazionalan ez ezik haren erregistro-eskaera hutsean ere; na-

zioarteko eskaera bati azterketa nazionala egiteko legezko estaldura eman zaio; kasu horretan ere marka nazional bihurtzeko aukera aurreikusi da; Espainian marka bat erregistratzea eskatzeko legitimazioa Merkataritzaren Mundu Erakundeko kide diren estatuetak nazionalitatea dutenei zabaldu zaie; marka ez erabiltzea justifikatzen duten arrazioen kontzeptua sartu da; marka nabari erregistratuen babesa sendotu da; ardo eta edari bizien adierazgarri geografiko faltsuak erregistratzeko erabateko debekua sartu da; formalitate eta inprimaki-ereduei buruzko aldaketak egin dira, horiekikoak sinpleagotuz eta, azkenik, sail askoko markaren aukera ere ezarri da.

Berrikuntza horien alboan badira beste batzuk legea egungo gizartearen behar eta baliabideetara egokitzeko helburuarekin egindakoak. Horretarako, aintzat hartu dira aurreko Markei buruzko Legea hamar urtez aplikatu izanaren esperientziak eta inguruko estatuetak sistematan baliagarri gertatu izan diren arauak. Era horretara, enpresek gaurko gizartearen behar duten azkartasun eta eraginkortasun gero eta handiagoari erantzuten ahalegindu da legea, segurtasun-maila juridikoa galdu gabe. Ikuspegi horretatik egindako berrikuntzak batez ere markak erregistratzeko sistemari buruzkoak izan dira. Lege berriak marka-eskubidea izateko galdatzen diren formaltasunak arindu ditu.

Nabarmentzekoak dira, bereziki, erregistratzeko prozeduran egindako erreformak. Patente eta Marken Espainiako Bulegoak egin beharreko azterketatik, debeku erlatiboek buruzko azterketa kendu egin da, ofiziozko azterketa hori erabateko debekuentzat utzirik. «Restitutio in integrum» figura sartu da. Onartze-prozedura geldieran uztea aurrizusten da, zehaztutako zenbait kasutan. Erregistratze-prozedura amaitu duten administrazio-egintzak arbitrajearen mende jartzeko aukera ematen da. Espedienteak jakinarazteko moduak eta haien kontsulta publikoa ere aldatu egin da. Erregistratzeko prozedura egungo gizartearen eskakizunetara egokitu da, jakinarazpenak, eskaerak, agiriak eta kontsultak egiteko bide elektronikoa edo telematikoa erabiltzeko aukera emanez.

Prozeduraz gainera, badira berrikuntzak beste arlo batzuetan ere: marka nabari eta entzutetsuaren definizioan eta babesean, marka-eskubidearen edukian eta helmenean, marka eratorrian eta marka zabaltzearen figuran (desagertu egin dira), markaren deuseztatzean eta iraungitzean (osatu eta sistematizatu egin dira), marka kolektiboen eta berme-marken araudian (berrantolatu egin da), sozietateen izendapenean eta izen komertzialaren inguruan, establezimendu-errotuluen erregistroan (kendu egin da) eta zerbitzuengatik ordaindu beharreko tasen eremuan.

Amaitzeko, lege honen garapenerako erregelamendua ere eman da (*687/2002 Errege Dekretua, uztailaren 12koa, Markei buruzko 2001eko abenduaren 7ko Le-*

gea exekutatzeko Erregelamendua onesten duena). Hartan arautzen dira, xehetasunez: erregistro-eskaera; erregistratzeko prozedura (eskaeraren forma, eskaturiko markaren zilegitasunaren azterketa, *Jabetza Industrialaren Buletin Ofizialean* argitaratu beharreko marka-eskaeraren elementuak, aurkakotza-idazkiak bete behar dituen betekizun formalak eta hura ez onartzea eragin dezaketen arrazoiak, edukiaren azterketa eta espedientearen azken ebazpena, markaren erregistroa, argitalpena eta erregistro-tituluan agertu beharreko aipamenak); markaren erregistroa berritzea; marka eskualdatzea (lizentziak ematea, eskubide errealak eratzea, gainerako eskubide edo negozioak egitea eta berorien inskripzioak); markari uko egitea; marka kolektiboa, berme-marka eta izen komertziala; nazioarteko eta Europar Erkidegoko marken eskaera eta prozedura eta, azkenik, prozedura bartzuei zein besteei buruzko xedapen orokorrak (eskaera edo erregistroa aldatzea, akatsak zuzentzea, interesdunen edo ordezkarien izen- edo helbide-aldaketak, markaren eskaera edo erregistroa zatitzea, eskubideak berrezartzeko eskaera eta prozedura, interesdunei jakinarazpenak eta adierazpenak egitea, Marken Erregistroari eta jendeari eskaintzen zaion informazioa eta ordezkartzarekin loturiko gaiak).

KONTSEILUAREN 207/2009 (EE)
ERREGELAMENDUA, 2009KO
OTSAILAREN 26KOA, ERKIDEGOKO
MARKARI BURUZKOA

REGLAMENTO (CE) N.º 207/2009
DEL CONSEJO, DE 26 DE FEBRERO
DE 2009, SOBRE LA MARCA
COMUNITARIA

EL CONSEJO DE LA UNIÓN EUROPEA,

Visto el Tratado constitutivo de la Comunidad Europea y, en particular, su artículo 308,

Vista la propuesta de la Comisión,

Visto el dictamen del Parlamento Europeo,

Considerando lo siguiente:

(1) El Reglamento (CE) núm. 40/94 del Consejo, de 20 de diciembre de 1993, sobre la marca comunitaria ha sido modificado en diversas ocasiones y de forma sustancial. Conviene, en aras de una mayor racionalidad y claridad, proceder a la codificación de dicho Reglamento.

(2) Debe promoverse un desarrollo armonioso de las actividades económicas en el conjunto de la Comunidad y una expansión continua y equilibrada mediante la plena realización y el buen funcionamiento de un mercado interior que ofrezca condiciones análogas a las existentes en un mercado nacional. La realización de tal mercado y el fortalecimiento de su unidad implican no solo la eliminación de los obstáculos a la libre circulación de mercancías y a la libre prestación de servicios, así como el establecimiento de un régimen que garantice que no se falsee la competencia, sino también la creación de condiciones jurídicas que permitan a las empresas adaptar de entrada sus actividades de fabricación y de distribución de bienes o de prestación de servicios a las dimensiones de la Comunidad. Entre los instrumentos jurídicos de que deberían disponer las empresas para estos fines, son particularmente apropiadas las marcas que les permitan identificar sus productos o sus servicios de manera idéntica en toda la Comunidad, sin consideración de fronteras.

(3) Para proseguir los objetivos comunitarios mencionados, resulta necesario prever un régimen comunitario de marcas que confiera a las empresas el derecho de adquirir, de acuerdo con un procedimiento único, marcas comunitarias que gocen de una protección uniforme y que produzcan sus efectos en todo el territorio de la Comunidad. El principio de la unicidad de la marca comunitaria así expresado debe aplicarse salvo disposición en contrario del presente Reglamento.

(4) La aproximación de las legislaciones nacionales no puede eliminar el obstáculo de la territorialidad de los derechos que las legislaciones de los Estados miembros confieren a los titulares de marcas. Para permitir a las empresas ejercer sin trabas una actividad económica en el conjunto del mercado interior, son necesarias marcas reguladas por un derecho comunitario único, directamente aplicable en cada Estado miembro.

EUROPAR BATASUNEN KONTSEILUAK,

Europar Erkidegoa eratzeko Tratatu eta, bereziki, haren 308. artikulua ikusi ondoren,

Batzordearen proposamena ikusi ondoren,

Europako Parlamentuaren irizpena ikusi ondoren,

Hau kontuan izanik:

(1) Kontseiluaren 40/94 (EE) Erregelamendua, 1993ko abenduaren 20koa, Erkidegoko markari buruzkoa, behin baino gehiagotan aldatu da eta aldatuta horiek funtsezkoak izan dira. Komenigarria da, arrazoizkotasun eta argitasun handiago baten izenean, erregelamendu hori kodifikatzea.

(2) Ekonomia-jarduerak Erkidego osoan modu harmoniatsuan garatzea eta modu jarraitu eta orekatuan hedatzea sustatu behar da, hartarako barne-merkatu bat osatuz, bete-betean eta ondo funtzionatuko duena eta merkatu nazional baten baldintzen antzekoak eskainiko dituen. Halako merkatu bat osatzeak eta haren batasuna indartzeak berekin dakarte salgaiak libre zirkulatzeko eta zerbitzuak libre emateko oztupoak kentzea, eta baita araubide bat ezartzea ere, lehia faltsutuko ez den berme, baina, horretaz gainera, baldintza juridikoak sortu behar dira, enpresen jarduerak —ondasunak fabrikatzeko eta banatzekoak nahiz zerbitzuak ematekoak— hasiera batean Erkidegoaren neurrietara egokitzea ahalbidetuko dutenak. Enpresek xede horietarako izan behar lituzketen tresna juridikoen artean, bereziki egokiak dira haiei beren produktuak edo zerbitzuak Erkidego osoan —mugen konturik gabe— modu berdinean identifikatzea ahalbidetuko dieten markak.

(3) Aipaturiko Erkidego-xede horiek aurrera eramateko, beharrezkoa da markei buruzko Erkidegoko araubide bat aurreikustea, haren bitartez enpresek, prozedura bakar baten arabera, era bereko babesa duten eta Erkidegoaren lurralde osoan efektuak dituzten Erkidegoko markak lortzeko eskubidea izan dezaten. Horrela adierazitako Erkidegoko markaren bakartasun-printzipioa aplikatu behar da, erregelamendu honetan kontrako xedapenik ezean.

(4) Legeria nazionalen hurbiltzeak ezin du desagerrarazi estatu kideetako legeriek marken titularrei ematen dieten eskubideen lurraldetasunaren oztupoa. Enpresei beren ekonomia-jarduera barne-merkatu osoan trazarik gabe egitea ahalbidetzeko, beharrezkoak dira Erkidegoko zuzenbide bakar batek —estatu kide bakoitzean zuzenean aplikagarriak— araturiko markak.

(5) Al no haber establecido el Tratado poderes de acción específicos para la creación de un instrumento jurídico de tales características, resulta conveniente recurrir al artículo 308 del Tratado.

(6) El derecho comunitario de marcas, no obstante, no sustituye a los derechos de marcas de los Estados miembros. En efecto, no parece justificado obligar a las empresas a que registren sus marcas como marcas comunitarias, ya que las marcas nacionales siguen siendo necesarias para las empresas que no deseen una protección de sus marcas a escala comunitaria.

(7) El derecho sobre la marca comunitaria sólo puede adquirirse por el registro, y este será denegado, en particular, en caso de que la marca carezca de carácter distintivo, en caso de que sea ilícita o en caso de que se opongan a ella derechos anteriores.

(8) La protección otorgada por la marca comunitaria, cuyo fin es primordialmente garantizar la función de origen de la marca, debe ser absoluta en caso de identidad entre la marca y el signo y entre los productos o servicios. La protección debe cubrir igualmente los casos de similitud entre la marca y el signo y entre los productos o servicios. Procede interpretar la noción de similitud en relación con el riesgo de confusión. El riesgo de confusión, cuya apreciación depende de numerosos factores y, en particular, del conocimiento de la marca en el mercado, de la asociación que pueda hacerse entre ella y el signo utilizado o registrado, del grado de similitud entre la marca y el signo y entre los productos o servicios designados, debe constituir la condición específica de protección.

(9) Del principio de libre circulación de mercancías se desprende que el titular de una marca comunitaria no puede prohibir su uso a un tercero, en el caso de productos que hayan sido comercializados en la Comunidad con dicha marca por él mismo o con su consentimiento, a no ser que existan motivos legítimos que justifiquen que el titular se oponga a la comercialización ulterior de los productos.

(10) Sólo está justificado proteger las marcas comunitarias y, contra éstas, cualquier marca registrada que sea anterior a ellas, en la medida en que dichas marcas sean utilizadas efectivamente.

(11) La marca comunitaria debe tratarse como un objeto de propiedad independiente de la empresa cuyos productos o servicios designe. La marca debe poderse ceder, siempre que esté a salvo la necesidad superior de no inducir a error al público debido a la cesión. Además, debe poder darse como garantía a un tercero o ser objeto de licencias.

(5) Tratatuak berriazko egintza-ahalmenik ezarri ez duenez halako tresna juridiko bat sortzeko, komenigarria da Tratatuaren 308. artikulura jotzea.

(6) Markei buruzko Erkidegoko zuzenbideak, hala eta guztiz ere, ez ditu ordeztzen estatu kideetako markei buruzko zuzenbideak. Izan ere, ez dirudi justifikatuta dagoenik enpresak behartzea beren markak Erkidegoko marka gisa erregistratzera, marka nazionalak beharrezkoak izaten jarraitzen baitute beren markak Erkidego mailan babestu nahi ez dituzten enpresentzat.

(7) Erkidegoko markaren gaineko eskubidea ezin da eskuratu erregistroz baino, eta erregistro horri ezezkua emango zaio, bereziki, markak izaera bereizgarririk ez duen kasuan, legez kontrakoa den kasuan edo aurretiazko eskubide batzuk aurka egiten dioten kasuan.

4. Toda modificación del Reglamento de uso deberá someterse a la aprobación de la Oficina Española de Patentes y Marcas. En el caso de las marcas de garantía, la modificación deberá acompañarse del correspondiente informe favorable emitido por el órgano competente en atención a la naturaleza de los productos o servicios a los que se destine la marca. La Oficina Española de Patentes y Marcas examinará si las modificaciones solicitadas cumplen las condiciones y requisitos previstos en la Ley 17/2001 y en este Reglamento, dando traslado, en su caso, de las irregularidades o defectos observados al solicitante para que en el plazo de un mes las subsane o presente sus alegaciones.

5. El acuerdo de inscripción o denegación de la modificación del Reglamento de uso se publicará en el «Boletín Oficial de la Propiedad Industrial».

Artículo 39. Nombres comerciales

1. En la solicitud de registro de nombre comercial se indicará expresamente que se solicita esta modalidad de signo distintivo. Idéntica mención habrá de efectuarse en las demás solicitudes que se presenten referidas a un nombre comercial.

2. Cumpliéndose las condiciones previstas en el apartado 4 del artículo 30 de este Reglamento, la solicitud de inscripción de la transmisión de un nombre comercial o de su solicitud podrá efectuarse conjuntamente con solicitudes o registros de marcas.

TÍTULO VII

MARCAS INTERNACIONALES Y COMUNITARIAS

Artículo 40. Examen preliminar de la solicitud de registro internacional

1. El órgano competente que reciba la solicitud de registro internacional examinará la documentación presentada conforme a lo previsto en el apartado 1 del artículo 82 de la Ley 17/2001 y, si observara alguna irregularidad, comunicará ésta al solicitante, otorgándole el plazo de diez días para su subsanación.

emandako aldeko txostena. 17/2001 Legearen 69. artikulua 2. zenbakiaren arabera txostena administrazio-isiltasunagatik aldekoa dela ulertu behar dezan, egintza hori eta txostena eskatu zitzaion organoaren eskumena egiaztatu beharko dira.

4. Erabilera-erregelamenduan zeinahi aldaketa egiteko, Patente eta Marken Espainiako Bulegoaren onarpena beharko da. Berme-marken kasuan, aldaketarekin batera, markaren xede diren produktu edo zerbitzuen izaera kontuan harturik organo eskudunak emandako aldeko txostena aurkeztu beharko da. Patente eta Marken Espainiako Bulegoak eskaturiko aldaketek 17/2001 Legean eta erregelamendu honetan aurreikusitako baldintza eta betekizunak betetzen dituzten aztertuko du, eta, irregularitasun edo akatsik hautematen badu, eskatzaileari helaraziko dizkio, hilabeteko epean zuzen ditzan edo alegazioak aurkez ditzan.

5. Erabilera-erregelamenduaren aldaketa inskribatzeko zein ukatzeko erabakia *Jabetza Industrialaren Buletin Ofizialean* argitaratuko da.

39. artikulua. Izen komertzialak

1. Izen komertziala erregistratzeko eskaeran, espresuki adieraziko da zeinu bereizgarri mota hori eskatzen dela. Aipamen bera egin beharko da izen komertzial bati buruz aurkezten diren gainerako eskaeretan.

2. Erregelamendu honen 30. artikulua 4. zenbakian aurreikusitako baldintzak betez gero, izen komertzial baten edo haren eskaeraren eskualdaketa inskribatzeko eskaera marka-eskaerekin zein marka-erregistroekin batera egin ahal izango da.

VII. TITULUA

NAZIOARTEKO ETA ERKIDEGOKO MARKAK

40. artikulua. Nazioarteko erregistro-eskaeraren atariko azterketa

1. Nazioarteko erregistro-eskaera jasotzen duen organo eskudunak 17/2001 Legearen 82. artikulua 1. zenbakian aurreikusitakoaren arabera aztertuko ditu aurkezturiko agiriak; irregularitasunen bat hautematen badu, eskatzaileari adieraziko dio, eta hamar eguneko epea emango dio hura zuzen dezan.

2. La Oficina Española de Patentes y Marcas, una vez recibida la solicitud remitida por el órgano competente de la correspondiente Comunidad Autónoma, la examinará conforme a lo previsto en el artículo 82.3 de la Ley 17/2001 y, si observara algún defecto, lo comunicará al solicitante, otorgándole el plazo de diez días para su subsanación.

3. Cuando el órgano competente para recibir la solicitud fuera la Oficina Española de Patentes y Marcas, los exámenes contemplados en los apartados 1 y 3 del artículo 82 de la Ley 17/2001 podrán efectuarse conjuntamente y, en el caso de observarse irregularidades o defectos, comunicarse éstos al solicitante mediante una única notificación para que en el plazo de diez días los subsane o presente sus alegaciones.

Artículo 41. Solicitud de transformación de un registro internacional

1. Recibida la solicitud de transformación, la Oficina Española de Patentes y Marcas examinará:

a) Si el registro internacional en que se basa ha sido cancelado conforme a lo previsto en el artículo 6.4 del Protocolo concerniente al Arreglo de Madrid de 27 de junio de 1989.

b) Si la documentación contemplada en el apartado 2 del artículo 83 de la Ley 17/2001 ha sido presentada en el plazo previsto en el apartado 1 de dicho artículo de la citada Ley.

c) Si los productos y servicios que comprende la solicitud de transformación estaban cubiertos para España por el registro internacional de que procede.

2. Si del examen anteriormente efectuado, se observara el incumplimiento de alguno de los requisitos señalados en el apartado anterior, se comunicarán los defectos observados al solicitante para que en el plazo de un mes presente sus alegaciones. La Oficina Española de Patentes y Marcas tendrá por desistida la solicitud de transformación si en la contestación presentada el solicitante no justificara el cumplimiento de dichos requisitos o no presentara la correspondiente limitación o modificación de los productos y servicios, ajustados a los efectivamente cubiertos por el registro internacional.

3. Superado este examen, la solicitud de transformación se tramitará como una solicitud de marca nacional, salvo en el caso de que se trate de la transformación de un registro internacional ya concedido para España, en cuyo caso se estará a lo dispuesto en el apartado 3 del artículo 83 de la Ley 17/2001 y no se efectuará la publicación de la solicitud, sino de la concesión del registro con arreglo a lo previsto en el artículo 23.3 de este Reglamento.

2. Patente eta Marken Espainiako Bulegoak, dagokion autonomia-erki-degoko organo eskudunak igorritako eskaera jasotakoan, 17/2001 Legearen 82.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera aztertuko du hura; akatsen bat hautematen badu, eskatzaileari adieraziko dio, eta hamar eguneko epea emango hura zuzen dezan.

3. Eskaera jasotzeko organo eskuduna Patente eta Marken Espainiako Bulegoa denean, batera egin ahal izango dira 17/2001 Legearen 82. artikulua-ren 1. eta 3. zerbakietan aurreikusitako azterketak, eta, irregulartasunak edo akatsak hautematen diren kasuan, jakinarazpen bakar baten bidez jakinarazi ahal izango zaizkio haiek eskatzaileari, hark hamar eguneko epean zuzen ditzan edo alegazioak aurkez ditzan.

41. artikulua. Nazioarteko erregistro bat eraldatzeko eskaera

1. Eraldaketa-eskaera jasotakoan, Patente eta Marken Espainiako Bulegoak hauek aztertuko ditu:

a) Ea haren oinarritzko nazioarteko erregistroa ezeztatu den 1989ko ekainaren 27ko Madrilgo Adostasunari buruzko Protokoloaren 6.4 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

b) Ea 17/2001 Legearen 83. artikulua-ren 2. zerbakian aurreikusitako dokumentazioa artikulua horren beraren 1. zerbakian aurreikusitako epean aurkeztu den.

c) Ea eraldaketa-eskaeran sartzen diren produktu edo zerbitzuek baduten haren sorburu den nazioarteko erregistroaren babesik Espainiarako.

2. Lehenago egindako azterketatik ondorioztatzen bada aurreko zerbakian adierazitako betekizunen bat ez dela betetzen, eskatzaileari jakinaraziko zaizkio hautemandako akatsak, hilabeteko epean alegazioak aurkez ditzan. Patente eta Marken Espainiako Bulegoak utzietsizat joko du eraldaketa-eskaera baldin eta eskatzaileak betekizun horiek bete dituela justifikatzen ez badu edo produktu eta zerbitzuen murrizketa edo aldaketa aurkezten ez badu, nazioarteko erregistroak egiazki babesten dituenetara egokiturik.

3. Azterketa hori gauditutakoan, eraldaketa-eskaera marka nazional baten eskaera bezala izapidetuko da, salbu eta dagoeneko Espainiarako onartua den nazioarteko erregistro baten eraldaketaren kasuan; kasu horretan, 17/2001 Legearen 83. artikulua-ren 3. zerbakian xedaturikoari jarraituko zaio eta eskaera ez da argitaratuko, erregistroaren onarpena baizik, erregelamendu honen 23.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Artículo 42. Solicitud de transformación de una marca comunitaria

1. La solicitud de transformación de una marca comunitaria no será preciso que se acompañe del formulario de solicitud de registro previsto en el artículo 1, pero en el plazo de dos meses, a contar desde la recepción de la petición de transformación por la Oficina Española de Patentes y Marcas, el solicitante deberá acompañar los documentos y cumplir los requisitos previstos en el apartado 2 del artículo 86 de la Ley 17/2001.

2. Cuando, conforme al apartado 3 del artículo 86 de la Ley 17/2001, la Oficina Española de Patentes y Marcas considere que la solicitud de transformación no puede ser aceptada por concurrir alguno de los motivos previstos en el artículo 108.2 del Reglamento (CE) 40/94 del Consejo, de 20 de diciembre de 1993, sobre la marca comunitaria, lo notificará al solicitante, otorgándole el plazo de un mes para que presente sus alegaciones. Este mismo plazo se concederá al solicitante cuando, conforme al apartado 4 del citado artículo de la citada Ley, se considere que la marca comunitaria no puede ser concedida directamente. Recibida la contestación del solicitante, la Oficina Española de Patentes y Marcas resolverá lo procedente.

3. En el supuesto de transformación de una marca comunitaria ya registrada, se estará a lo previsto en el apartado 4 del artículo 86 de la Ley 17/2001 y no se efectuará la publicación de la solicitud, sino de la concesión del registro con arreglo a lo previsto en el artículo 23.3 de este Reglamento.

TÍTULO VIII

DISPOSICIONES GENERALES SOBRE LOS PROCEDIMIENTOS

CAPÍTULO I

Modificación de la solicitud o registro y rectificación de errores

Artículo 43. Modificación de la solicitud o del registro de la marca

1. La solicitud de modificación de la solicitud o registro de la marca, conforme a lo previsto, respectivamente, en los artículos 23 y 33 de la Ley 17/2001, deberá incluir:

- a) El número de la solicitud o registro de la marca.

42. artikulua. Erkidegoko marka bat eraldatzeko eskaera

1. Erkidegoko marka bat eraldatzeko eskaerarekin batera ez da beharrezko izango eskaera-inprimakia aurkeztea, baina, bi hilabeteko epean, Patente eta Marken Espainiako Bulegoak eraldaketa-eskaera jasotzen duenetik kontatzen hasita, 17/2001 Legearen 86. artikulua 2. zenbakian aurreikusitako agiriak aurkeztu eta betekizunak bete beharko ditu eskatzaileak.

2. Baldin eta, 17/2001 Legearen 86. artikulua 3. zenbakiaren arabera, Patente eta Marken Espainiako Bulegoak irizten badio eraldaketa-eskaera ezin dela onartu Erkidegoko markari buruzko 1993ko abenduaren 20ko Kontseiluaren 40/94 (EE) Erregelamenduaren 108.2 artikuluan aurreikusitako arrazoiren batengatik, Bulegoak horren berri emango dio eskatzaileari, eta hilabeteko epea emango alegazioak aurkez ditzan. Epe hori bera emango zaio eskatzaileari baldin eta, aipaturiko legearen aipaturiko artikulua 4. zenbakiaren arabera, irizten bazaio Erkidegoko marka ezin dela zuzenean eman. Eskatzailearen erantzuna jasotakoan, Patente eta Marken Espainiako Bulegoak dagokiona ebatziko du.

3. Jada erregistraturiko Erkidegoko marka baten eraldaketaren kasuan, 17/2001 Legearen 86. artikulua 4. zenbakian aurreikusitakoa beteko da eta ez da eskaera argitaratuko, erregistroaren onarpena baizik, erregelamendu honen 23.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

VIII. TITULUA

PROZEDUREI BURUZKO XEDAPEN OROKORRAK

I. KAPITULUA

Eskaera zein erregistroa aldatzea eta hutsegiteak zuzentzea

43. artikulua. Markaren eskaera zein erregistroa aldatzea

1. Markaren eskaera zein erregistroa aldatzeko eskaeran —eskaeraren kasuan, 17/2001 Legearen 23. artikuluan eta, erregistroaren kasuan, 33. artikuluan aurreikusitakoaren arabera—, hauek agertu beharko dute:

a) Markaren eskaeraren zein erregistroaren zenbakia.

b) El nombre y dirección del solicitante o titular de la marca, conforme a lo dispuesto en el párrafo b) del artículo 1.1 de este Reglamento.

c) Si se hubiera designado representante, el nombre y dirección de éste, conforme a lo previsto en el párrafo f) del artículo 1.1 de este Reglamento.

d) Si se trata de una modificación de la solicitud, la indicación del elemento de la misma que haya de ser modificado y la versión modificada de dicho elemento.

e) Si se trata de una modificación del registro, la mención del elemento del nombre o de la dirección del titular que haya de ser modificado en la representación de la marca y el elemento en su versión modificada.

f) Cuando la modificación afecte a la representación de la marca, la reproducción de la marca modificada de conformidad con lo dispuesto en el artículo 2 de este Reglamento.

g) La firma del interesado o de su representante.

h) El justificante del pago de la tasa de modificación.

2. La solicitud de modificación se presentará ante el órgano que en ese momento esté tramitando la solicitud de registro de la marca. Cuando la solicitud de modificación se refiera a una marca ya registrada, deberá presentarse ante la Oficina Española de Patentes y Marcas o el órgano competente de la correspondiente Comunidad Autónoma, que la remitirá a dicha Oficina, de acuerdo con lo dispuesto en el apartado 2 del artículo 33 de la Ley 17/2001.

3. Si no se cumplieran los requisitos previstos en la Ley 17/2001 y en este Reglamento para la modificación de la solicitud o del registro de la marca, se notificarán al solicitante las irregularidades o los reparos observados y, si no se subsanasen en el plazo de diez días, la solicitud de modificación será denegada, continuándose la tramitación en el caso de que la modificación solicitada se refiera a una solicitud de registro.

Cuando la modificación se refiera a una marca registrada, el acuerdo de denegación se notificará al solicitante.

4. El órgano competente de la Comunidad Autónoma que hubiera acordado la modificación solicitada, comunicará a la Oficina Española de Patentes y Marcas, en el plazo de cinco días a contar desde la adopción del acuerdo, los datos de la solicitud tal como hubieren quedado modificados. La Oficina anotará las correspondientes modificaciones en los asientos registrales.

b) Markaren eskatzailearen zein titularraren izena eta helbidea, erregelamendu honen 1.1 artikulua b) letran xedaturikoaren arabera.

c) Ordezkaria izendatu bada, haren izena eta helbidea, erregelamendu honen 1.1 artikulua f) letran aurreikusitakoaren arabera.

d) Eskaeraren aldaketa baten kasuan, zein den eskaeran aldatu beharreko elementua eta zein elementu horren bertsio aldatua.

e) Erregistroaren aldaketa baten kasuan, titularraren izenaren edo helbidearen zein elementu aldatu behar den markaren irudikapenean eta zein den elementuaren bertsio aldatua.

f) Aldaketak markaren irudikapenari eragiten dionean, marka aldatuaren erreprodukzioa, erregelamendu honen 2. artikuluan xedaturikoaren arabera.

g) Interesdunaren edo haren ordezkariaren sinadura.

h) Aldaketa-tasa ordaindu izanaren frogagiria.

2. Aldaketa-eskaera aurkezteko, une horretan markaren erregistro-eskaera izapidetzen ari den organoaren aurrera jo behar da. Aldaketa-eskaera, dagoneko erregistraturik dagoen marka bati buruzkoa denean, Patente eta Marken Espainiako Bulegoan edo dagokion autonomia-erkidegoko organo eskudunaren aurrean aurkeztu behar da; autonomia-erkidegoko organoak Bulego horri igorriko dio hura, 17/2001 Legearen 33. artikulua 2. zenbakian xedaturikoaren arabera.

3. 17/2001 Legean eta erregelamendu honetan markaren eskaera zein erregistroa aldatzeko aurreikusitako betekizunak betetzen ez badira, eskatzaileari jakinaraziko zaizkio hautemandako irregularitasun eta eragozpenak eta, haiek hamar eguneko epean zuzentzen ez badira, aldaketa-eskaerari ezezkoa emango zaio; eskaturiko aldaketa erregistro-eskaera bati buruzkoa den kasuan, izapidetzen jarraituko da.

Aldaketa marka erregistratu bati buruzkoa denean, ezezkoa emateko erabakia eskatzaileari jakinaraziko zaio.

4. Eskaturiko aldaketa onartu duen autonomia-erkidegoko organo eskudunak Patente eta Marken Espainiako Bulegoari jakinaraziko dizkio, erabakia hartzen denetik bost eguneko epean, eskaeraren datuak, aldatuta geratu diren bezala. Bulegoak erregistro-idazpenetan jasoko ditu dagozkion aldaketak.

5. Cuando la modificación de la solicitud de la marca se refiera a la representación de la misma o a la lista de productos o servicios y se introdujera después de la publicación de la solicitud, en el acuerdo de resolución del expediente se publicará la reproducción de la marca o la lista de productos y servicios tal como hubieran quedado modificados. La modificación del registro de la marca también será publicada conforme a lo dispuesto en el artículo 33.2 de la Ley 17/2001.

Artículo 44. Rectificación de errores

1. Las faltas de expresión o transcripción y los errores materiales contenidos en la solicitud, registro de la marca o en cualquier documento dirigido a la Oficina Española de Patentes y Marcas u órgano competente de la correspondiente Comunidad Autónoma podrán ser rectificadas a petición del interesado. No obstante, si la petición de rectificación tuviera por objeto el distintivo, su descripción, sus elementos reivindicados o la enumeración de los productos o servicios, la rectificación deberá ser de tal naturaleza que resulte evidente que el único texto que podría haber sido propuesto por el interesado es el rectificado y siempre que ello no afecte substancialmente a la identidad de la marca o al ámbito de su protección. La Oficina Española de Patentes y Marcas u órgano competente podrán exigir pruebas adicionales cuando duden, razonablemente, de que la rectificación solicitada constituya efectivamente un error.

2. Cuando en las resoluciones, asientos registrales o en la publicación de la solicitud o registro se hubiera cometido alguna falta o error imputable a la Oficina Española de Patentes y Marcas, ésta lo corregirá de oficio o a petición del interesado. En caso de petición del interesado, la solicitud de corrección de estas faltas o errores no estará sujeta al pago de tasa alguna.

3. Serán aplicables a las rectificaciones reguladas en los apartados anteriores las previsiones establecidas en el artículo 43 del Reglamento en todo aquello que no sea incompatible con su propia naturaleza o contrario a lo dispuesto en el presente artículo.

4. La solicitud de rectificación de errores podrá comprender varias solicitudes o registros de la misma persona, cuando el error o falta y la corrección solicitada sean los mismos. En este supuesto, habrán de indicarse los números de todas las solicitudes o registros que deban rectificarse, abonándose la tasa correspondiente por cada una de las solicitudes o registros afectados.

5. Markaren eskaera-aldaketa markaren irudikapenari buruzkoa edo produktu zein zerbitzuen zerrendari buruzkoa denean eta eskaera argitaratu ondoren egiten denean, espedientea ebazteko erabakian markaren erreproduzioa edo produktu eta zerbitzuen zerrenda argitaratuko da, aldatuta geratu diren bezala. Orobat argitaratuko da marka-erregistroaren aldaketa, 17/2001 Legearen 33.2 artikuluan xedaturikoaren arabera.

44. artikulua. Hutsegiteak zuzentzea

1. Markaren eskaeran, erregistroan edo Patente eta Marken Espainiako Bulegoari zein dagokion autonomia-erkidegoko organo eskudunari zuzendutako zeinahi agiritan dauden adierazpen- zein transkripzio-akatsak eta hutsegite materialak interesdunaren eskariz zuzendu ahal izango dira. Hala ere, bereizgarria, haren deskripzioa, haren elementu aldarrikatuak edo produktu zein zerbitzuen zerrendatzea bada zuzentzea eskatzen dena, egiten den zuzenketatik garbi ikusi beharko da zuzendu den testua dela interesdunak proposa zezakeen bakarra, eta ezin izango du funtsezko eraginik markaren identitatean edo haren babes-eremuan. Patente eta Marken Espainiako Bulegoak zein organo eskudunak, eskaturiko zuzenketa egiazki hutsegite bat denentz arrazoizko duda daukatenean, froga gehiago eskatu ahal izango dituzte.

2. Ebazpenetan, erregistro-idazpenetan edo eskaeraren zein erregistroaren argitalpenean Patente eta Marken Espainiako Bulegoari egotz dakioken akats edo hutsegiteren bat egin denean, Bulegoak ofizioz zein interesdunaren eskariz zuzenduko du. Interesdunaren eskariz bada, akats zein hutsegite horiek zuzentzeko eskaeratik ez da ordaindu beharko tasarik.

3. Aurreko zenbakietan arauturiko zuzenketei aplikagarriak izango zaizkie erregelamendu honen 43. artikuluan ezarritako aurreikuspenak, haien izaerarekin bateraezina edo artikulua honetan xedaturikoaren kontrakoa ez den guzti hartan.

4. Hutsegiteak zuzentzeko eskaeran, pertsona beraren eskaera zein erregistro bat baino gehiago sartu ahal izango dira, hutsegitea edo akatsa eta eskaturiko zuzenketa berak direnean. Kasu horretan, zuzendu beharreko eskaera zein erregistro guztien zenbakiak adierazi beharko dira, eta eskaera zein erregistro bakoitzari dagokion tasa ordaindu.

Artículo 45. Cambios de nombre o dirección del interesado o del representante

1. Cuando no haya cambio en la persona del titular o solicitante de la marca, pero sí en su nombre o dirección, se inscribirá dicho cambio en el Registro de Marcas a solicitud de dicho titular o solicitante.

2. Las solicitudes de cambio de nombre o dirección deberán incluir:

a) El número de la solicitud o registro de la marca.

b) El nombre y dirección del solicitante o titular de la marca, tal como figuren en el Registro de Marcas.

c) Si se hubiera designado representante, el nombre y dirección de éste, conforme a lo previsto en el párrafo f) del artículo 1.1 de este Reglamento.

d) La indicación del nuevo nombre o dirección del solicitante o titular de la marca, tal como haya de inscribirse en el Registro de Marcas tras el cambio producido.

e) La firma del interesado o de su representante.

f) Cuando proceda, el justificante de pago de la tasa correspondiente, prevista en la tarifa 2.2 del anexo de la Ley 17/2001.

3. Se podrán agrupar en una única solicitud de cambio de nombre o dirección todos los registros o solicitudes que pertenezcan al interesado. En este caso, habrán de indicarse los números de todas las solicitudes o registros afectados, abonándose la tasa correspondiente por cada uno de ellos.

4. Cuando la Oficina Española de Patentes y Marcas dude, razonablemente, de la veracidad del cambio de nombre o dirección solicitados, podrá pedir al interesado la presentación de las pruebas que acrediten dicho cambio.

5. Los apartados anteriores serán de aplicación al cambio de nombre o dirección del representante.

6. Los cambios en la dirección del solicitante o titular de la marca no estarán sujetos al pago de tasa alguna.

7. Serán aplicables a los cambios de nombre y dirección regulados en los apartados anteriores las previsiones establecidas en el artículo 43 del Reglamento en todo aquello que no sea incompatible con su propia naturaleza o contrario a lo dispuesto en el presente artículo.

45. artikulua. Interesdunaren zein haren ordezkariaren izena edo helbidea aldatzea

1. Markaren titularra edo eskatzailea aldatzen ez denean, baina bai haren izena edo helbidea, aldaketa hori Marken Erregistroan inskribatuko da titular edo eskatzaile horren eskariz.

2. Izena zein helbidea aldatzeko eskaeretan, hauek agertu beharko dute:

a) Markaren eskaeraren edo erregistroaren zenbakia.

b) Markaren eskatzailearen edo titularraren izena eta helbidea, Marken Erregistroan agertzen diren bezala.

c) Ordezkaria izendatu bada, haren izena eta helbidea, erregelamendu honen 1.1 artikulua f) letran aurreikusitakoaren arabera.

d) Markaren eskatzailearen edo titularraren izen edo helbide berria, gertaturiko aldaketaren ondoren Marken Erregistroan inskribatu behar den bezala.

e) Interesdunaren edo haren ordezkariaren sinadura.

f) Hala badagokio, 17/2001 Legearen eranskinaren 2.2 tarifyan aurreikusitako tasa ordaindu izanaren frogagiria.

3. Interesdunaren erregistro edo eskaera guztiak izena zein helbidea aldatzeko eskaera bakar batean elkartu ahal izango dira. Kasu horretan, aldaketak ukitzen dituen eskaera zein erregistro guztien zenbakiak adierazi beharko dira, eta haietariko bakoitzari dagokion tasa ordaindu.

4. Patente eta Marken Espainiako Bulegoak arrazoizko duda badu eskaturiko izen- zein helbide-aldaketa egiazkoa denentz, aldaketa hori egiaztatzen duten frogak aurkezteko eskatu ahal izango dio interesdunari.

5. Aurreko zenbakiak aplikagarriak izango zaizkio ordezkariaren izen- zein helbide-aldaketari.

6. Markaren eskatzailearen zein titularraren helbide-aldaketek ez dute inolako tasarik ordaindu beharko.

7. Aurreko zenbakietan arauturiko izen- zein helbide-aldaketei aplikagarriak izango zaizkie erregelamenduaren 43. artikuluan ezarritako aurreikuspenak, aldaketen izaerarekin bateraezina edo artikulua honetan xedaturikoaren kontrakoa ez den guzti hartan.

8. Lo dispuesto en los apartados anteriores será aplicable, conforme a su propia naturaleza, a los cambios de nacionalidad del solicitante o titular de la marca o del Estado en que tenga su domicilio, sede o establecimiento.

CAPÍTULO II

División de la solicitud

Artículo 46. División de la solicitud o del registro de la marca

1. En la contestación al suspenso por defectos de forma, fondo u oposiciones, el solicitante podrá dividir su solicitud de marca en dos o más solicitudes divisionales. También podrá dividirse la solicitud al presentarse el oportuno recurso administrativo contra la denegación de la marca o cuando se solicite una transmisión parcial de acuerdo con lo previsto en el artículo 31.2 del presente Reglamento. La solicitud de división se presentará ante el órgano que en ese momento estuviese tramitando la solicitud de registro o que fuese competente para resolver el recurso o fuese competente para recibir la solicitud de transferencia, según proceda.

2. Por cada solicitud divisional resultante se presentará instancia separada, indicando los productos y servicios que se desglosan de la solicitud inicial y que conforman la solicitud divisional correspondiente. Cada instancia de división irá acompañada de las correspondientes solicitudes segregadas de registro con las menciones, requisitos y documentos que exigen los artículos 1 a 4 del presente Reglamento. En dichas solicitudes segregadas de registro se indicará además el carácter divisional de las mismas y el número, fecha de presentación y clases de la solicitud inicial de que proceden.

El justificante del pago de la tasa de solicitud a que se refiere el citado artículo 4 será sustituido para las solicitudes divisionales por el justificante de pago de la tasa de división.

3. La lista de productos y servicios de las solicitudes divisionales no podrá exceder del total de productos y servicios que comprenda la solicitud inicial dividida. Si en la solicitud inicial se utilizara algún concepto general, en las solicitudes divisionales se deberá utilizar ese mismo concepto general, aunque el mismo podrá ser restringido mediante adiciones que especifiquen los productos o servicios a que se concreta cada solicitud divisional, sin que en ningún caso puedan producirse superposiciones entre ellas.

4. Recibida la solicitud de división, el órgano competente examinará si la misma se ajusta a lo previsto en el artículo 24 de la Ley 17/2001 y si cumple

8) Aurreko zenbakietan xedaturikoa aplikagarria izango zaie, aldaketen izaeraren arabera, eskatzailearen zein titularraren nazionalitatearen edo hark helbidea, egoitza edo establezimendua duen estatuaren aldaketei.

II. KAPITULUA

Eskaera zatitzea

46. artikulua. Markaren eskaera zein erregistroa zatitzea

1. Forma- zein eduki-akatsen edo aurkakotzen ondorioz eskaera geldieran utzi izanari erantzutean, eskatzaileak bi eskaera-zatiduratan edo gehiagotan zatitu ahal izango du bere eskaera. Orobat zatitu ahal izango da eskaera markari ezezkoa ematearen aurkako administrazio-errekurtsoa aurkeztean edo, erregelamendu honen 31.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eskualdaketa partzial bat eskatzen denean. Zatitze-eskaera aurkezteko, une horretan erregistro-eskaera izapidetzen ari den edo errekurtsoa ebazteko eskudun den edo eskualdatze-eskaera jasotzeko eskudun den organora jo beharko da, zer dagokion.

2. Ondoriozko eskaera-zatidura bakoitzeko eskari-orri bat aurkeztuko da, eta hasierako eskaeratik bereizten diren eta dagokion eskaera-zatidura osatzen duten produktu eta zerbitzuak zein diren adieraziko. Zatiketaren eskari-orri bakoitzarekin, dagozkien erregistro-eskaera bananduak aurkeztuko dira, erregelamendu honen 1. artikulutik 4.era artekoetan galdaturiko aipamen, betekizun eta agiriekin batera. Erregistro-eskaera banandu horietan, honako hauek ere adieraziko dira: haien zatidura-izaera eta haien sorburu den hasierako eskaeraren zenbakia, aurkezpen-data eta sailak.

Aipaturiko 4. artikulua horretan adierazten den eskaera-tasa ordaindu izanaren frogagiriaren orde, zatiketa-tasa ordaindu izanaren frogagiria beharko da eskaera-zatiduren kasuan.

3. Eskaera-zatiduretako produktu eta zerbitzuen zerrenda ezin izango da hasierako eskaera zatituan dauden produktu eta zerbitzu guztiak baino luzeagoa. Hasierako eskaeran kontzeptu orokor bat erabiltzen bada, eskaera-zatiduretan ere kontzeptu orokor hori bera erabili beharko da, nahiz eta kontzeptu hori mugatu ahal izango den eskaera-zatidura bakoitzeko produktu edo zerbitzuak zehazten dituzten gehikuntzen bidez, baina eskaera-zatiduren arteko elkar-gainkarik ez gertatzeko moduan betiere.

4. Zatitze-eskaera jasotakoan, organo eskudunak eskaerak 17/2001 Legearen 24. artikuluan aurreikusitakoa jarraitzen duen eta aurreko zenbakie-

los requisitos exigidos en los apartados anteriores. Si se observaran defectos o irregularidades, se notificarán al solicitante para que en el plazo de un mes los subsane o presente alegaciones. Si los defectos no fueran subsanados, la división se tendrá por desistida, continuándose la tramitación del expediente inicial. Durante el procedimiento de división, el procedimiento de registro o recurso quedará en suspenso conforme a lo previsto en el artículo 26.c) de la Ley 17/2001.

5. Acordada la división de la solicitud, la Oficina Española de Patentes y Marcas u órgano competente abrirá un nuevo expediente por cada solicitud divisional presentada e incluirá en cada solicitud divisional una copia completa del expediente de la solicitud inicial y en este expediente inicial una copia de las solicitudes divisionales presentadas. El órgano competente de la Comunidad Autónoma remitirá inmediatamente a la Oficina Española de Patentes y Marcas el expediente de la solicitud inicial y de la solicitud divisional no afectada por el suspenso, continuando con la tramitación de la solicitud divisional afectada por el suspenso. La Oficina Española de Patentes y Marcas asignará un nuevo número a cada solicitud divisional y efectuará las anotaciones registrales pertinentes. El nuevo número de la solicitud divisional será comunicado al órgano competente de la Comunidad Autónoma.

6. Toda solicitud, petición o declaración hecha por el solicitante en relación con la solicitud inicial será válida y aplicable a las solicitudes divisionales.

7. Los apartados anteriores serán aplicables, en lo que proceda, a la división del registro de la marca. La división del registro de la marca, salvo lo previsto en el artículo 31 de este Reglamento, sólo podrá ser solicitada en el procedimiento de recurso contra la concesión de la marca. En este caso, la solicitud de división habrá de presentarse ante la Oficina Española de Patentes y Marcas a lo más tardar en el momento de contestar al recurso interpuesto.

CAPÍTULO III

Restablecimiento de derechos

Artículo 47. Solicitud de restablecimiento de derechos

1. La solicitud para el restablecimiento de un derecho deberá presentarse en el plazo de dos meses a contar desde el cese del impedimento. La solicitud se presentará ante la Oficina Española de Patentes y Marcas o el órgano compe-

tan galdaturiko betekizunak betetzen dituen aztertuko du. Akatsak edo irregulartasunak hautematen badira, eskatzaileari jakinaraziko zaizkio, hilabeteko epean zuzen ditzan edo alegazioak aurkez ditzan. Akatsak zuzentzen ez badira, zatiketa utzietsizat joko da eta hasierako espedientea izapidetzen jarraituko. Zatitze-prozedurak dirauen bitartean, geldieran utziko da erregistro- zein errekurtsio-prozedura, 17/2001 Legearen 26.c) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

5. Eskaera zatitzea onartutakoan, Patente eta Marken Espainiako Bulegoak zein organo eskudunak beste espediente bat irekiko du aurkezturiko eskaera-zatidura bakoitzeko eta, eskaera-zatidura bakoitzean, hasierako eskaeraren espedientearen kopia oso bat sartuko du, eta hasierako espediente horretan, berriz, aurkezturiko eskaera-zatiduren kopia bat. Autonomia-erkidegoko organo eskudunak Patente eta Marken Espainiako Bulegoari igorriko dio, berehala, hasierako eskaeraren espedientea eta geldierak ukitzen ez duen eskaera-zatidurarena, eta geldierak ukitzen duen eskaera-zatidura izapidetzen jarraituko du. Patente eta Marken Espainiako Bulegoak beste zenbaki bat esleituko dio eskaera-zatidura bakoitzari, eta dagozkion erregistro-oharpenak egingo ditu. Eskaera-zatiduraren zenbaki berria autonomia-erkidegoko organo eskudunari jakinaraziko zaio.

6. Hasierako eskaerari buruz eskatzaileak egindako zeinahi eskaera, eskari edo deklarazio baliozkoa izango da eskaera-zatidurentzat eta haiei aplikagarria.

7. Aurreko zenbakiak aplikagarriak izango zaizkio, dagokion hartan, markaren erregistroa zatitzeari. Markaren erregistroa zatitzea, salbu eta erregelamendu honen 31. artikuluan aurreikusitakoa, ezin eskatuko da markaren onarpenaren kontrako errekurtsio-prozeduran baino. Kasu horretan, Patente eta Marken Espainiako Bulegoan aurkeztu beharko da zatitze-eskaera; beranduen, jarritako errekurtsioari erantzuteko unean.

III. KAPITULUA

Eskubideak berrezartzea

47. artikulua. Eskubideen berrezartzea eskatzea

1. Eskubide bat berrezartzeko eskaera eragozpena desagertzen denetik bi hilabeteko epean aurkeztu beharko da. Eskaera Patente eta Marken Espainiako Bulegoaren aurrean aurkeztuko da edo, eskubidea galtzea ekarri duen epea ez

tente de la correspondiente Comunidad Autónoma frente al que se hubiera incumplido el plazo determinante de la pérdida del derecho.

2. La solicitud de restablecimiento deberá incluir:

a) Nombre y dirección del solicitante o titular de la marca cuyo restablecimiento se solicita.

b) Si procede, nombre y dirección del representante.

c) Plazo o trámite incumplido.

d) Si procede, acuerdo y fecha de la extinción del derecho y de su publicación o notificación.

e) Fecha de cese del impedimento.

f) Motivos del incumplimiento, justificación, pruebas y alegaciones en apoyo de la pretensión.

g) Firma del interesado o de su representante.

h) Justificante del abono de la tasa de restablecimiento de derechos.

3. Con la solicitud de restablecimiento del derecho deberá cumplirse el trámite omitido, acompañándose la formalización del acto o la solicitud, escrito o documentación que se omitió en su día en dicho trámite y cuya ausencia determinó la pérdida del derecho.

Artículo 48 Examen y resolución de la solicitud

1. El órgano competente examinará si la solicitud de restablecimiento del derecho cumple los requisitos previstos en el artículo anterior y en el apartado 2 del artículo 25 de la Ley 17/2001 y si el acto o trámite omitido ha sido debidamente cumplido en todas sus formalidades al presentarse la solicitud de restablecimiento.

2. Si se observara alguna irregularidad o defecto en la documentación presentada, tanto respecto de la solicitud de restablecimiento como del cumplimiento del trámite omitido, se comunicarán éstos al solicitante para que en el plazo de diez días los subsane. De no subsanarse en dicho plazo las irregularidades o defectos señalados, la solicitud de restablecimiento se tendrá por desistida.

3. Cuando en la documentación presentada no se observaran irregularidades o defectos o éstos hubieran sido subsanados, el órgano competente examinará si, conforme a lo dispuesto en los apartados 1, 5 y 7 del artículo 25 de la Ley 17/2001:

betetzea autonomia-erkidego baten kontra egin bada, autonomia-erkidego horretako organo eskudunaren aurrean.

2. Berrezartze-eskaeran, hauek agertu beharko dute:

a) Berrezartzea eskatzen den markaren eskatzaile zein titularraren izena eta helbidea.

b) Hala badagokio, ordezkariaren izena eta helbidea.

c) Bete ez den epea edo izapidea.

d) Hala badagokio, eskubidea azkentzeko erabakia eta data, eta haren argitaratze- edo jakinarazpen-data.

e) Eragozpena desagertu den data.

f) Ez betetzearen arrazoiak, uziaren aldeko justifikazioa, frogak eta alegazioak.

g) Interesdunaren edo haren ordezkariaren sinadura.

h) Eskubideak berrezartzeari dagokion tasa ordaindu izanaren frogagiria.

3. Eskubidea berrezartzeko eskaerarekin batera, bete gabeko izapidea bete beharko da, eta bere garaian izapide horretan alde batera utzi zen eta alde batera utzi izanak eskubidea galtzea ekarri zuen egintza, eskaera, idazkia edo dokumentazioa formalizatu.

48. artikulua. Eskaera aztertzea eta ebatzea

1. Organo eskudunak aztertuko du ea eskubidea berrezartzeko eskaerak aurreko artikuluan eta 17/2001 Legearen 25. artikulua 2. zerbakiaren aurreikusitako betekizunak betetzen dituen eta ea egin gabeko egintza edo izapidearen formalitate guztiak behar bezala bete diren berrezartze-eskaera aurkeztean.

2. Irregularitasunik edo akatsik hautematen bada aurkezturiko agirietan, hala berrezartze-eskaerari dagokionez nola bete gabeko izapideari dagokionez, haien berri emango zaio eskatzaileari, hamar eguneko epean zuzen ditzan. Adierazitako irregularitasunik edo akatsak epe horretan zuzendu ezean, berrezartze-eskaera utzietsizat joko da.

3. Aurkezturiko agirietan irregularitasunik edo akatsik hautematen ez denean edo irregularitasunik edo akatsak zuzendu direnean, organo eskudunak, 17/2001 Legearen 25. artikulua 1. 5. eta 7. zerbakietan xedaturikoari jarraituz, hauek aztertuko ditu:

a) Se ha acreditado la diligencia debida en las circunstancias del caso.

b) El plazo incumplido es susceptible de restablecimiento.

c) No existe ningún derecho de tercero que impida el restablecimiento solicitado.

4. Efectuado el examen previsto en el apartado anterior, el órgano competente resolverá, estimando o desestimando el restablecimiento del derecho. No obstante, si concurriera el impedimento previsto en la letra c) del apartado anterior, el órgano competente, antes de resolver, comunicará dicha circunstancia al solicitante y al titular del signo presuntamente impeditivo del restablecimiento solicitado para que en el plazo de un mes presenten sus alegaciones. A la vista de estas alegaciones, el órgano competente resolverá. Contra la resolución que restablezca en sus derechos al solicitante podrá interponer recurso el tercero que pueda prevalerse de las disposiciones de los apartados 6 y 7 del artículo 25 de la Ley 17/2001, de Marcas.

5. La Oficina Española de Patentes y Marcas publicará su resolución en el Boletín Oficial de la Propiedad Industrial.

6. Cuando el órgano competente para resolver la solicitud de restablecimiento de derechos sea un órgano autonómico, éste comunicará a la Oficina Española de Patentes y Marcas la presentación de la solicitud y la resolución definitiva que adopte.

CAPÍTULO IV

Notificaciones y comunicaciones

Artículo 49. Notificaciones y comunicaciones de la Oficina Española de Patentes y Marcas

1. Las notificaciones y comunicaciones que haya de realizar la Oficina Española de Patentes y Marcas se efectuarán mediante la entrega o remisión del documento original, una copia del mismo firmada o sellada, o un documento elaborado por ordenador que incorpore impreso dicho sello.

2. Además de los medios de notificación previstos en el artículo 29 de la Ley 17/2001, las notificaciones podrán efectuarse en los locales de la Oficina Española de Patentes y Marcas mediante entrega directa del documento al interesado que acusará recibo del mismo.

a) Ea egiaztatu den behar bezalako ardura izan dela kasuaren inguruabarretan.

b) Ea bete gabeko epea berrezargarria den.

c) Ea ez dagoen hirugarren baten eskubiderik, eskaturiko berrezarpena eragozten duenik.

4. Aurreko zenbakian aurreikusitako azterketa egindakoan, organo eskudunak ebazpena emango du, eta eskubidea berrezartzea baietsiko edo ezetsiko. Hala ere, aurreko zenbakiko c) letran aurreikusitako eragozpena agertzen bada, organo eskudunak, ebatzi aurretik, horren berri emango die eskatzaileari eta eskaturiko berrezartzea ustez galarazten duen zeinuaren titularrari, hilabeteko epean beren alegazioak aurkeztu ditzaten. Alegazio horiek ikusitakoan, organo eskudunak ebazpena emango du. Eskatzaileari bere eskubideak berrezartzen dizkion ebazpenaren kontra errekurtsua jarri ahal izango du Markei buruzko 17/2001 Legearen 25. artikuluan 6. eta 7. zenbakietako xedapenak baliaraz ditzakeen hirugarrenak.

5. Patente eta Marken Espainiako Bulegoak *Jabetza Industrialaren Buletin Ofizialean* argitaratuko du bere ebazpena.

6. Eskubideak berrezartzeko eskaera ebazteko eskudun den organoa autonomia-erkidego bateko organoa denean, organo horrek Patente eta Marken Espainiako Bulegoari adieraziko dizkio aurkeztu den eskaera eta haren gainean hartzen duen behin-betiko ebazpena.

IV. KAPITULUA

Jakinarazpenak eta adierazpenak

49. artikulua. Patente eta Marken Espainiako Bulegoaren jakinarazpenak eta adierazpenak

1. Patente eta Marken Espainiako Bulegoak, jakinarazpenak zein adierazpenak egiteko, jatorrizko dokumentua entregatu edo igorriko du, edo haren kopia sinatu eta zigilatu bat, edo ordenagailuz eginiko agiri bat, zigilu hori inprimaturik duena.

2. Jakinarazpenak, 17/2001 Legearen 29. artikuluan aurreikusitako jakinarazpen-bideetatik ez ezik, Patente eta Marken Espainiako Bulegoaren lokaletan ere egin ahal izango dira, dokumentua zuzenean interesdunari emanez eta hark hura jaso izana adieraziz.

3. Cuando la notificación se efectúe mediante el depósito del documento en el buzón de que disponga el interesado en la Oficina Española de Patentes y Marcas, se hará constar la fecha del depósito en el documento notificado y en la copia que obre en el expediente.

4. Las notificaciones mediante telefax u otros medios técnicos o electrónicos de comunicación se efectuarán transmitiendo el original o una copia del documento tal como se prevé en el apartado 1. El Director de la Oficina Española de Patentes y Marcas, de conformidad con lo previsto en la disposición adicional octava de la Ley 17/2001, determinará los pormenores de dicha transmisión, en el marco de los criterios de seguridad, normalización y conservación a los que se refiere el Real Decreto 263/1996, de 16 de febrero, por el que se regula la utilización de técnicas electrónicas, informáticas y telemáticas por la Administración General del Estado. Las notificaciones efectuadas telemáticamente se entenderán practicadas conforme a lo previsto en el artículo 59.3 de la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

5. Las comunicaciones de carácter simplemente informativo que haya de realizar la Oficina Española de Patentes y Marcas, podrán efectuarse por correo ordinario, electrónico u otro medio técnico de que disponga la Oficina.

Artículo 50. Comunicaciones de los interesados

1. Las solicitudes de registro de marca, así como cualquier otra solicitud prevista en la Ley 17/2001 o en este Reglamento y todas las demás comunicaciones dirigidas a la Oficina Española de Patentes y Marcas u órganos competentes de las Comunidades Autónomas por los interesados se efectuarán mediante la presentación en dicha Oficina u órganos competentes o en los lugares que prevé el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, de un original firmado del documento de que se trate.

2. Cuando así se establezca, dichas solicitudes y comunicaciones también podrán efectuarse mediante la presentación del documento en soporte magnético o electrónico o mediante la transmisión del mismo por telefax u otros medios electrónicos. El Director de la Oficina Española de Patentes y Marcas establecerá las condiciones, requisitos y características de estos medios de presentación o transmisión, tales como el equipo o material que hayan de utilizarse, los pormenores técnicos de comunicación y los métodos de identificación del remitente, en el marco de los criterios de seguridad, normalización y conservación a los que se re-

3. Jakinarazpena interesdunak Patente eta Marken Espainiako Bulegoan duen postontzian dokumentua utziz egiten denean, postontziratze-data ageriarazi beharko da jakinarazitako dokumentuan eta espedientean dagoen kopian.

4. Telefaxez zein beste komunikabide tekniko edo elektroniko batzuen bidez jakinarazpenak egiteko, jatorrizko dokumentua edo haren kopia bat igorriko da, 1. zenbakian aurreikusi bezala. Patente eta Marken Espainiako Bulegoko zuzendariak zehaztuko ditu, 17/2001 Legearen zortzigarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoaren arabera, igorpen horren xehetasunak, Estatuko Administrazio Orokorrek teknika elektroniko, informatiko eta telematikoak nola erabili arautzen duen 1996ko otsailaren 16ko 263/1996 Errege Dekretuak aipaturiko segurtasun- normalizazio- eta kontserbazio-irizpideen esparruan. Bide telematikoz egindako jakinarazpenak Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 59.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera egindakotzat joko dira.

5. Patente eta Marken Espainiako Bulegoak egin beharreko informazio hutsezko adierazpenak posta arruntez, posta elektronikoz zein Bulegoak duen beste zeinahi bide teknikoaz egin ahal izango dira.

50. artikulua. Interesdunen adierazpenak

1. Marka erregistratzeko eskaerak egiteko, eta baita 17/2001 Legean zein erregelamendu honetan aurreikusitako beste zeinahi eskaera eta interesdunek Patente eta Marken Espainiako Bulegoari zein autonomia-erkideetako organo eskudunei zuzendutako gainerako adierazpen guztiak egiteko ere, dagokion dokumentuaren jatorrizko bat aurkeztu beharko da, sinaturik, Bulego horretan zein organo eskudun horien aurrean edo Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusten diren lekuetan.

2. Hala ezartzen denean, eskaera eta adierazpen horiek orobat egin ahal izango dira dokumentua euskarri magnetikoan edo elektronikoan aurkeztuz edo telefaxez zein beste bide elektroniko batzuez bidaliz. Patente eta Marken Espainiako Bulegoko zuzendariak ezarriko ditu aurkezteko zein bidaltzeko bide horien baldintza, betekizun eta ezaugarriak, hala nola erabili beharreko tresneria edo materiala, komunikaziorako xehetasun teknikoak eta bidaltzailea identifikatzeko metodoak, erregelamendu honen 49. artikuluan 4. zenbakian aipaturiko segurtasun-, normalizazio- eta kontserbazio-irizpideen esparruan.

fiere el apartado 4 del artículo 49 de este Reglamento. La creación de un registro telemático para la recepción de solicitudes transmitidas por medios telemáticos se ajustará a lo dispuesto en el artículo 38.9 de la Ley 30/1992 antes citada.

Artículo 51. Impresos normalizados

1. La Oficina Española de Patentes y Marcas, además de los impresos normalizados previstos en este Reglamento, podrá establecer otros para la presentación de las demás solicitudes y comunicaciones de los interesados. La aprobación de todos los impresos se efectuará mediante resolución del Director general de la Oficina Española de Patentes y Marcas.

2. Los interesados en los procedimientos ante la Oficina Española de Patentes y Marcas deberán usar dichos impresos normalizados, copias de esos impresos o impresos con el mismo contenido y formato, tales como impresos creados mediante tratamiento electrónico de datos.

3. Los impresos deberán ser cumplimentados de manera que su contenido pueda ser introducido de forma automática en un ordenador mediante, por ejemplo, el reconocimiento de caracteres y la lectura óptica.

4. La Oficina Española de Patentes y Marcas hará accesibles al público los impresos normalizados a que se refiere el apartado 1 del presente artículo mediante su puesta a disposición en redes de comunicación telemática.

CAPÍTULO V

Registro de marcas e información al público

Artículo 52. Forma y contenido del Registro de Marcas

1. El Registro de Marcas a que se refiere el artículo 1 de la Ley 17/2001, podrá llevarse en forma de base de datos electrónica.

2. En el Registro de Marcas se inscribirán, en relación con las marcas nacionales, marcas internacionales y nombres comerciales, las menciones siguientes:

a) Número de la solicitud de registro.

b) Fecha de presentación de la solicitud.

c) Nombre, dirección y nacionalidad del solicitante o titular del registro y el Estado en que tenga su domicilio, su sede o establecimiento.

Bide telematikoz igorritako eskaerak jasotzeko erregistro telematiko bat sortzean, lehen aipaturiko 30/1992 Legearen 38.9 artikuluan xedaturikoari jarraituko zaio.

51. artikulua. Inprimaki normalizatuak

1. Patente eta Marken Espainiako Bulegoak, erregelamendu honetan aurreikusitako inprimaki normalizatuaz gainera, beste batzuk ere ezarri ahal izango ditu interesdunen gainerako eskaera eta adierazpenetarako. Patente eta Marken Espainiako Bulegoko zuzendariaren ebazpen bidez onartuko dira inprimaki guztiak.

x) se entenderá por «Clasificación de Niza» la clasificación establecida por el Arreglo de Niza relativo a la Clasificación Internacional de Productos y Servicios para el Registro de las Marcas, firmado en Niza el 15 de junio de 1957, en su forma revisada y modificada;

xi) se entenderá por «licencia» una licencia para usar una marca conforme a la legislación de una Parte Contratante;

xii) se entenderá por «licenciataria» la persona a quien se ha concedido una licencia;

xiii) se entenderá por «Parte Contratante» cualquier Estado u organización intergubernamental parte en el presente Tratado;

xiv) se entenderá por «conferencia diplomática» la convocación de las Partes Contratantes con el fin de revisar o modificar el Tratado;

xv) se entenderá por «Asamblea» la Asamblea mencionada en el artículo 23;

xvi) se entenderá que las referencias a un «instrumento de ratificación» incluyen referencias a instrumentos de aceptación y aprobación;

xvii) se entenderá por «Organización» la Organización Mundial de la Propiedad Intelectual;

xviii) se entenderá por «Oficina Internacional», la Oficina Internacional de la Organización;

xix) se entenderá por «Director General» el Director General de la Organización;

vi) «titularra» esaten denean, marken erregistroan erregistroaren titular agertzen den pertsona ulertuko da;

vii) «marken erregistroa» esaten denean, Bulego batek gordetzen duen datu-bilduma ulertuko da; hartan sartzen dira erregistro guztien edukia eta erregistro horiei buruz inskribaturiko datu guztiak, zeinahi ere dela informazio hori gordetzen den euskarria;

viii) «Bulegoaren aurrean jarraituriko prozedura» esaten denean, eskaera zein erregistro bati dagokionez Bulegoaren aurrean jarraituriko zeinahi prozedura ulertuko da;

ix) «Parisko Hitzarmena» esaten denean, 1883ko martxoaren 20an Parisen sinatu zen Jabetza Industrialak Babesteko Parisko Hitzarmena ulertuko da, beraren forma berrikusi eta aldatuan;

x) «Nizako Sailkapena» esaten denean, Markak Erregistratzeko Produktu eta Zerbitzuen Nazioarteko Sailkapenari buruz 1957ko ekainaren 15ean Nizan sinaturiko Nizako Adostasunak ezarritako sailkapena ulertuko da, beraren forma berrikusi eta aldatuan;

xi) «lizentzia» esaten denean, Alderdi Kontratugile baten legeriaren arabera marka bat erabiltzeko lizentzia ulertuko da;

xii) «lizentzia-hartzailea» esaten denean, lizentzia bat eman zaion pertsona ulertuko da;

xiii) «Alderdi Kontratugilea» esaten denean, tratatu honetan parte den zeinahi estatu edo gobernuarteko erakunde ulertuko da;

xiv) «konferentzia diplomatikoa» esaten denean, Tratatu berrikusi edo aldatzeko helburuz Alderdi Kontratugileak biltzea dela ulertuko da;

xv) «Batzarra» esaten denean, 23. artikuluan aipaturiko Batzarra ulertuko da;

xvi) «berreste-tresna» bati buruzko erreferentziak egiten direnean, onartze-eta oneste-tresnei buruzko erreferentziak ere haietan sartzen direla ulertuko da;

xvii) «Erakundea» esaten denean, Jabetza Intelektualaren Mundu Erakundea ulertuko da;

xviii) «Nazioarteko Bulegoa» esaten denean, Erakundearen Nazioarteko Bulegoa ulertuko da;

xix) «zuzendari nagusia» esaten denean, Erakundeko zuzendari nagusia ulertuko da;

xx) se entenderá por «Reglamento» el Reglamento del presente Tratado mencionado en el artículo 22.

xxi) se entenderá que las referencias a un «artículo» o a un «párrafo», «apartado» o «punto» de un artículo incluyen referencias a la regla o reglas correspondientes del Reglamento;

xxii) se entenderá por «TLT de 1994» el Tratado sobre el Derecho de Marcas adoptado en Ginebra el 27 de octubre de 1994.

Artículo 2. Marcas a las que se aplica el Tratado

1) [Naturaleza de las marcas] Las Partes Contratantes aplicarán el presente Tratado a las marcas que consistan en signos que puedan registrarse como marcas conforme a sus legislaciones.

2) [Tipos de marcas]

a) El presente Tratado se aplicará a las marcas relativas a productos (marcas de producto) o a servicios (marcas de servicio), o relativas a productos y servicios.

b) El presente Tratado no se aplicará a las marcas colectivas, marcas de certificación y marcas de garantía.

Artículo 3. Solicitud

1) [Indicaciones o elementos contenidos en una solicitud o que la acompañan; tasas]

a) Una Parte Contratante podrá exigir que una solicitud contenga algunas o todas las indicaciones o elementos siguientes:

i) Una petición de registro;

ii) el nombre y la dirección del solicitante;

iii) el nombre de un Estado de que sea nacional el solicitante, si es nacional de algún Estado, el nombre de un Estado en que el solicitante tenga su domicilio, si lo tuviere, y el nombre de un Estado en que el solicitante tenga un establecimiento industrial o comercial real y efectivo, si lo tuviere;

iv) cuando el solicitante sea una persona jurídica, la naturaleza jurídica de esa persona jurídica y el Estado y, cuando sea aplicable, la unidad territorial dentro de ese Estado, conforme a cuya legislación se haya constituido dicha persona jurídica;

xx) «Erregelamendua» esaten denean, tratatu honen erregelamendua ulertuko da, 22. artikuluan aipatua.

xxi) «artikulu», «paragrafo», «zenbaki» edo «puntu» bati buruzko erreferentziak egiten direnean, Erregelamenduan dagozkion erregela edo erregelei buruzko erreferentziak ere haietan sartzen direla ulertuko da;

xxii) «1994ko TLTa» esaten denean 1994ko urriaren 27an Genevan onetsitako Marka Zuzenbideari buruzko Trataturia (Trademark Law Treaty) ulertuko da.

2. artikulua. Trataturia aplikatzen zaien markak

1) [Marken izaera] Alderdi Kontratugileek trataturia hau aplikatuko diete beren legerien arabera marka gisa erregistra daitezkeen zeinu diren markei.

2) [Marka motak]

a) Trataturia hau aplikatuko zaie produktuei buruzko markei (produktu-markak), zerbitzuei buruzkoei (zerbitzu-markak), edota produktu eta zerbitzuei buruzkoei.

b) Trataturia hau ez zaie aplikatuko marka kolektiboei, ziurtapen-markei eta berme-markei.

3. artikulua. Eskatera

1) [Eskatera batek dauzkan edo harekin batera aurkezten diren oharpen edo elementuak; tasak]

a) Alderdi Kontratugile batek galdatu ahal izango du eskatera batek eduki ditzala honako oharpen edo elementuetariko batzuk edo guztiak:

i) erregistratzeko eskari bat;

ii) eskatzailearen izena eta helbidea;

iii) eskatzaileak nazionalitatea duen estatu baten izena, estaturen bateko nazionalitaterik badu; eskatzaileak helbidea duen estatu baten izena, helbiderik badu, eta eskatzaileak industria- zein merkataritza-establezimendu egiazko eta benetako bat duen estatu baten izena, halakorik badu;

iv) eskatzailea pertsona juridiko bat denean, pertsona juridiko horren izaera juridikoa eta estatua eta, pertsona juridiko hori estatu horren barruko lurralde-unitate baten legeriaren arabera eratu denean, lurralde-unitate hori, aplikagarria denean;

v) cuando el solicitante sea un representante, el nombre y la dirección de ese representante;

vi) cuando se exija una dirección para notificaciones conforme a lo dispuesto en el artículo 4.2) b), esa dirección;

vii) cuando el solicitante desee prevalerse de la prioridad de una solicitud anterior, una declaración en la que se reivindique la prioridad de esa solicitud anterior, junto con indicaciones y pruebas en apoyo de la declaración de prioridad que puedan ser exigidas en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 4 del Convenio de París;

viii) cuando el solicitante desee prevalerse de cualquier protección resultante de la exhibición de productos o servicios en una exposición, una declaración a tal efecto, junto con indicaciones en apoyo de esa declaración, como lo requiera la legislación de la Parte Contratante;

ix) al menos una representación de la marca, según lo previsto en el Reglamento;

x) cuando proceda, una declaración, según lo previsto en el Reglamento, en la que el solicitante indique el tipo de marca, así como cualquier requisito específico aplicable a ese tipo de marca;

xi) cuando proceda, una declaración, según lo previsto en el Reglamento, en la que se indique que el solicitante desea que la marca se registre y se publique en los caracteres estándar utilizados por la Oficina;

xii) cuando proceda, una declaración, según lo previsto en el Reglamento, en la que se indique que el solicitante desea reivindicar el color como característica distintiva de la marca;

xiii) una transliteración de la marca o de ciertas partes de la marca;

xiv) una traducción de la marca o de ciertas partes de la marca;

xv) los nombres de los productos y servicios para los que se solicita el registro, agrupados de acuerdo con las clases de la Clasificación de Niza, precedido cada grupo por el número de la clase de esa Clasificación a la que pertenezca ese grupo de productos o servicios y presentado en el orden de las clases de esa Clasificación;

xvi) una declaración de intención de usar la marca, tal como lo estipule la legislación de la Parte Contratante.

b) El solicitante podrá presentar en lugar o además de la declaración de intención de usar la marca, a que se hace referencia en el apartado a) xvi), una de-

v) eskatzailea ordezkari bat denean, ordezkari horren izena eta helbidea;

vi) tratatu honen 4.2) b) artikuluan xedaturikoaren arabera jakinarazpenetarako helbide bat galdatzen denean, helbide hori;

vii) eskatzaileak aurretiazko eskaera baten lehentasuna baliarazi nahi duenean, deklarazio bat, aurretiazko eskaera horren lehentasuna aldarrikatzen duena, eta, harekin batera, Parisko Hitzarmenaren 4. artikuluan xedaturikoa betez galda daitezkeen lehentasun-deklarazioaren aldeko oharpen eta frogak;

viii) eskatzaileak produktu edo zerbitzuak erakusketa batean erakutsi izanaren ondoriozko babesen bat baliarazi nahi duenean, horri dagokion deklarazio bat eta, harekin batera, deklarazio horren aldeko oharpenak, Alderdi Kontratugilearen legeriak eskatu bezala;

ix) markaren irudikapen bat, gutxienez, Erregelamenduan aurreikusitakoaren arabera;

x) hala dagokionean, eskatzaileak markaren mota adierazten duen deklarazio bat, Erregelamenduan aurreikusitakoaren arabera, eta baita marka mota horri aplikatu dakiokeen berariazko zeinahi betekizun ere;

xi) hala dagokionean, eskatzaileak marka Bulegoak erabiltzen dituen karaktere estandarretan erregistratu eta argitaratzea nahi duela adierazten duen deklarazio bat, Erregelamenduan aurreikusitakoaren arabera;

xii) hala dagokionean, eskatzaileak markaren ezaugarri bereizgarritzat kolorea aldarrikatu nahi duela adierazten duen deklarazio bat, Erregelamenduan aurreikusitakoaren arabera;

xiii) markaren edo markaren parte batzuen transliterazioa;

xiv) markaren edo markaren parte batzuen itzulpena;

xv) erregistratzea eskatzen den produktu eta zerbitzuen izenak, Nizako Sailkapeneko sailen arabera multzokaturik, multzo bakoitzaren aurrean Sailkapen horretan produktu eta zerbitzu horiei dagokien sailaren zenbakia jarririk eta multzoak Sailkapen horren sailen hurrenkeran aurkezturik;

xvi) marka erabiltzeko asmoaren deklarazio bat, Alderdi Kontratugilearen legeriak ezartzen duen eran.

b) Eskatzaileak, a) xvi) puntuan aipaturiko marka erabiltzeko asmoaren deklarazioaren ordezkari edo hartaz gainera, marka egiazki erabiltzen duelako dekla-

claración de uso efectivo de la marca y pruebas a tal efecto, tal como lo estipule la legislación de la Parte Contratante.

c) Una Parte Contratante podrá solicitar que, respecto de la solicitud, se paguen tasas a la Oficina.

2) [Solicitud única para productos o servicios pertenecientes a varias clases] La misma solicitud podrá referirse a varios productos o servicios independientemente de que pertenezcan a una o varias clases de la Clasificación de Niza.

3) [Uso efectivo] Una Parte Contratante podrá exigir que, cuando se haya presentado una declaración de intención de usar la marca conforme al párrafo 1)a)xvi), el solicitante presente a la Oficina, dentro de un plazo fijado por la ley y con sujeción al plazo mínimo previsto en el Reglamento, pruebas del uso efectivo de la marca, tal como lo exija la mencionada ley.

4) [Prohibición de otros requisitos] Ninguna Parte Contratante podrá exigir que se cumplan, respecto de la solicitud, requisitos distintos de los mencionados en los párrafos 1) y 3) y en el artículo 8. En particular, no se podrá exigir respecto de la solicitud mientras esté en trámite:

i) Que se suministre cualquier tipo de certificado o extracto de un registro de comercio;

ii) que se indique que el solicitante ejerce una actividad industrial o comercial, ni que se presenten pruebas a tal efecto;

iii) que se indique que el solicitante ejerce una actividad que corresponde a los productos o servicios enumerados en la solicitud, ni que se presenten pruebas a tal efecto;

iv) que se presenten pruebas a los efectos de que la marca ha sido registrada en el registro de marcas de otra Parte Contratante o de un Estado parte en el Convenio de París que no sea una Parte Contratante, salvo cuando el solicitante invoque la aplicación del artículo 6 quinquies del Convenio de París.

5) [Pruebas] Una Parte Contratante podrá exigir que se presenten pruebas a la Oficina durante el examen de la solicitud, cuando la Oficina pueda dudar razonablemente de la veracidad de cualquier indicación o elemento contenido en la solicitud.

Artículo 4. Representación; dirección para notificaciones

1) [Representantes admitidos a ejercer].

razio bat eta horren frogak aurkeztu ahal izango ditu, Alderdi Kontratugilearen legeriak ezartzen duen eran.

c) Alderdi Kontratugile batek Bulegoari tasak ordaintzea eskatu ahal izango du, eskaerari dagokionez.

2) [sail batekoak baino gehiagokoak diren produktu eta zerbitzuentzako eskaera bakarra] Eskaera berean zenbait produktu edo zerbitzu sartu ahal izango dira, Sailkapeneko saila bati zein gehiagori dagozkionak direla ere.

3) [Egiazko erabilera] Alderdi Kontratugile batek galdatu ahal izango du, 1)a)xvi) paragrafoaren arabera marka erabiltzeko asmoaren deklarazio bat aurkeztu denean, eskatzaileak aurkez diezazkiola Bulegoari, legeak ezarritako epearen barruan eta Erregelamenduan aurreikusitako gutxieneko epea gordez, marka egiazki erabiltzen delako frogak, aipaturiko legeak galdatzen duen eran.

4) [Beste betekizun batzuen debekua] Ezein Alderdi Kontratugilek ezin galdatuko du, eskaerari dagokionez, 1) eta 3) paragrafoetan eta 8. artikuluan aipaturikoez besteko betekizunik betetzea. Bereziki, ezin galdatuko da eskaerari dagokionez hura izapidetzen ari den bitartean:

i) merkataritzako erregistro bateko zeinahi eratako ziurtagiri edo laburpen aurkeztea;

ii) eskatzaileak jarduera industrial edo komertzial bat egiten duela adieraztea, ez eta horren frogarik aurkeztea ere;

iii) eskatzaileak eskaeran zerrendaturiko produktu edo zerbitzuei dagokien jarduera bat egiten duela adieraztea, ez eta horren frogarik aurkeztea ere;

iv) marka beste Alderdi Kontratugile baten marken erregistroan edo Alderdi Kontratugile ez den eta Parisko Hitzarmenean parte den estatu baten erregistroan erregistratu delako frogak aurkeztea, salbu eta eskatzaileak Parisko Hitzarmenaren 6 quinques artikulua aplikazioa alegatzen denean.

5) [Frogak] Alderdi Kontratugile batek eskatu ahal izango du Bulegoari frogak aurkez dakizkiola eskaera aztertzen den bitartean, Bulegoak arrazoizko zalantzak baditu eskaeran azaltzen den zeinahi oharpen edo elementuren egiazkotasunaz.

4. artikulua. Ordezkaritza; jakinarazpenetarako helbidea

1) [Jarduteko onarturiko ordezkarriak]

a) Una Parte Contratante podrá exigir que un representante nombrado a los efectos de cualquier procedimiento ante la Oficina,

i) esté facultado, conforme a la legislación aplicable, para ejercer ante la Oficina respecto de solicitudes y registros y, cuando proceda, esté admitido a ejercer ante la Oficina;

ii) proporcione, como dirección, una dirección en un territorio aceptado por la Parte Contratante.

b) Una actuación relativa a cualquier procedimiento ante la Oficina, realizada por un representante o con respecto a éste, que cumpla con las exigencias impuestas por la Parte Contratante conforme a lo dispuesto en el apartado a), tendrá el efecto de una actuación realizada por el solicitante, titular u otra persona interesada, o con respecto a éstos, que haya nombrado a ese representante.

2) [Representación obligatoria; dirección para notificaciones].

a) Una Parte Contratante podrá exigir que, a los efectos de cualquier procedimiento ante la Oficina, un solicitante, titular u otra persona interesada que no tenga un domicilio ni un establecimiento industrial o comercial real y efectivo en su territorio, esté representado por un representante.

b) Una Parte Contratante, en la medida en que no exija la representación de conformidad con el apartado a), podrá exigir que, a los efectos de cualquier procedimiento ante la Oficina, el solicitante, el titular u otra persona interesada que no tenga un domicilio ni un establecimiento industrial o comercial real y efectivo en su territorio, sí tenga una dirección para notificaciones en ese territorio.

3) [Poder].

a) Cuando una Parte Contratante permita o exija que un solicitante, un titular o cualquier otra persona interesada esté representado por un representante ante la Oficina, podrá exigir que el representante sea nombrado en una comunicación separada (denominada en adelante «poder»), indicando el nombre del solicitante, del titular o de la otra persona, según proceda.

b) El poder podrá referirse a una o más solicitudes o a uno o más registros identificados en el mismo o, con sujeción a cualquier excepción indicada por el poderdante, a todas las solicitudes o todos los registros existentes o futuros de esa persona.

a) Alderdi Kontratugile batek honako hauek galdatu ahal izango dizkio Bulegoaren aurrean jarraituriko zeinahi prozeduratan jarduteko izendaturiko ordezkari bati:

i) aplikagarria den legeriaren arabera, eskaera eta erregistroei buruz Bulegoaren aurrean jarduteko ahalmena izatea eta, hala dagokionean, Bulegoaren aurrean jarduteko onarpena izatea;

ii) Alderdi Kontratugileak onarturiko lurralde bateko helbide bat ematea helbidetzat.

b) Ordezkarri batek edo ordezkari horri buruz Bulegoaren aurrean jarraituriko zeinahi prozeduratan egindako egintzabide batek, a) letran xedaturikoaren arabera Alderdi Kontratugileak ezarritako eskakizunak betetzen baditu, ordezkari hori izendatu duen eskatzaileak, titularrak edo beste pertsona interesdun batek edo horiei buruz egindako egindakoarena izango du.

2) [Nahitaezko ordezkaritza; jakinarazpenetarako helbidea]

a) Alderdi Kontratugile batek galdatu ahal izango du ordezkari batek ordezkari dezala eskatzailea, titularra edo pertsona interesduna, Bulegoaren aurrean jarraitu beharreko zeinahi prozeduratarako, eskatzaile, titular edo pertsona interesdun horrek ez badu helbiderik, ez industria- zein merkataritza-establezimendu egiazko eta benetakorik Alderdi Kontratugilearen lurraldean.

b) Alderdi Kontratugile batek, a) letraren arabera ordezkaritza galdatzen ez duen heinean, esku izango du galdatzeko eskatzaileak, titularrak edo pertsona interesdunak jakinarazpenetarako helbide bat izan dezala bere lurraldean, Bulegoaren aurrean jarraitu beharreko zeinahi prozeduratarako, eskatzaile, titular edo pertsona interesdun horrek ez badu helbiderik, ez industria- zein merkataritza-establezimendu egiazko eta benetakorik lurralde horretan.

3) [Ahalordea]

a) Alderdi Kontratugile batek, eskatzaile, titular edo pertsona interesdun bat Bulegoaren aurrean ordezkari batek ordezkari dezala ahalbidetzen edo galdatzen duenean, esku izango du galdatzeko ordezkaria adierazpen bereiz batean (aurrerantzean «ahalorde» deitua) izenda dadila, eskatzailearen, titularraren edo beste pertsonaren izena —zer dagokion— adieraziz.

b) Ahalordea hauei buruzkoa izan daiteke: ahalordean identifikaturiko eskaera bati edo gehiagori zein erregistro bati edo gehiagori buruzkoa edo, ahalorde-emaileak adierazitako zeinahi salbuespen gordez gero, pertsona horrek dagoeneko dituen edo etorkizunean izango dituen eskaera guztiei zein erregistro guztiei buruzkoa.

c) El poder podrá limitar las facultades del representante a ciertos actos. Una Parte Contratante podrá exigir que todo poder conforme al cual el representante tenga derecho a retirar una solicitud o a renunciar a un registro, contenga una indicación expresa a tal efecto.

d) Cuando se presente en la Oficina una comunicación de una persona que se designe en la comunicación como un representante, pero en el momento de recibir la comunicación la Oficina no estuviera en posesión del poder necesario, la Parte Contratante podrá exigir que el poder se presente en la Oficina dentro del plazo fijado por la Parte Contratante, con sujeción al plazo mínimo previsto en el Reglamento. Una Parte Contratante podrá disponer que, cuando el poder no haya sido presentado a la Oficina en el plazo fijado por la Parte Contratante, la comunicación realizada por esa persona no tendrá ningún efecto.

4) [Referencia al poder] Una Parte Contratante podrá exigir que cualquier comunicación a esa Oficina efectuada por un representante a los fines de un procedimiento ante esa Oficina, contenga una referencia al poder sobre cuya base actúa el representante.

5) [Prohibición de otros requisitos] Ninguna Parte Contratante podrá exigir que se cumplan requisitos distintos de los mencionados en los párrafos 3) y 4) y en el artículo 8 respecto de los asuntos tratados en esos párrafos.

6) [Pruebas] Una Parte Contratante podrá exigir que se presenten pruebas a la Oficina cuando ésta pueda dudar razonablemente de la veracidad de cualquier indicación contenida en cualquiera de las comunicaciones mencionadas en los párrafos 3) y 4).

Artículo 5. Fecha de presentación

1) [Requisitos permitidos].

a) Con sujeción a lo dispuesto en el apartado b) y en el párrafo 2), una Parte Contratante asignará como fecha de presentación de la solicitud la fecha en que la Oficina haya recibido las siguientes indicaciones y elementos en el idioma previsto en el artículo 8.2):

i) Una indicación expresa o implícita de que se pretende registrar una marca;

ii) indicaciones que permitan establecer la identidad del solicitante;

iii) indicaciones que permitan que la Oficina establezca contacto con el solicitante o con su representante, si lo hubiere;

c) Ahalordea mugatua izan daiteke, hots, ordezkariari egintza batzuetarako baino ahalmenik ematen ez diona. Ordezkariari eskaera bat erretiratzeko zein erregistro bati uko egiteko eskubidea ematen dion ahalordea bada, Alderdi Kontratugile batek galdatu ahal izango du espresuki adieraz dadila hori ahalordean.

d) Adierazpen batean ordezkari gisa izendaturiko pertsona batek Bulegoaren aurrean adierazpen hori aurkezten badu, baina Bulegoak, adierazpena jasotzen den ulean, beharrezkoa den ahalordea ez badu, Alderdi Kontratugileak esku izango du galdatzeko aurkez dadila ahalordea Bulegoan Alderdi Kontratugileak ezarritako epearen barruan, Erregelamenduan aurreikusitako gutxieneko epea gordez. Alderdi Kontratugile batek, ahalordea Alderdi Kontratugileak ezarritako epean Bulegoan aurkeztu ez denean, esku izango du galdatzeko pertsona horrek egindako adierazpenak ez dezala izan efekturik.

4) [Ahalordearen aipamena] Alderdi Kontratugile batek galdatu ahal izango du, ordezkari batek Bulego horren aurrean jarraituriko prozedura baten kariaz Bulego horri zeinahi adierazpen igortzen dionean, ordezkariaren jarduren oinarri den ahalordea aipa dadila adierazpenean.

5) [Beste betekizun batzuen debekua] Ezein Alderdi Kontratugilek ezin galdatuko du 3) eta 4) zenbakietan eta 8. artikuluan aipaturikoez besteko betekizunik betetzea zenbaki horietan trataturiko gaiei dagokienez.

6) [Frogak] Alderdi Kontratugile batek Bulegoari frogak aurkez dakizkiola galdatu ahal izango du, Bulegoak arrazoizko zalantzak baditu 3) eta 4) zenbakietan aipaturiko zeinahi adierazpenetan agertzen den zeinahi oharpenen egiazkotasunaz.

5. artikulua. Aurkezpen-data

1) [Baimenduriko betekizunak]

a) Artikulu honen b) letran eta 2) zenbakian xedaturikoa gordez, Alderdi Kontratugile batek honako oharpen eta elementu hauek 8.2) artikuluan aurreikusitako hizkuntzan Bulegoan jasotzen diren data emango du aurkezpen-datatzat:

i) Marka bat erregistratu nahi delako oharpen espresua zein inplizitua;

ii) eskatzailea identifikatzea ahalbidetuko duten oharpenak;

iii) Bulegoa eskatzailearekin edo, ordezkariarik bada, ordezkariarekin harremanetan jartzea ahalbidetuko duten oharpenak;

iv) una representación suficientemente clara de la marca cuyo registro se solicita;

v) la lista de los productos y servicios para los que se solicita el registro;

vi) cuando sea aplicable el artículo 3.1)a)xvi) o b), la declaración a que se refiere el artículo 3.1)a)xvi) o la declaración y las pruebas mencionadas en el artículo 3.1)b), respectivamente, tal como lo estipule la legislación de la Parte Contratante.

b) Una Parte Contratante podrá asignar como fecha de presentación de la solicitud la fecha en la que la Oficina reciba sólo algunas, en lugar de todas, las indicaciones y elementos mencionados en el apartado a), o los reciba en un idioma distinto del exigido conforme al artículo 8.2).

2) [Requisito adicional permitido].

a) Una Parte Contratante podrá prever que no se asignará ninguna fecha de presentación mientras no se hayan pagado las tasas exigidas.

b) Una Parte Contratante sólo podrá exigir el cumplimiento del requisito mencionado en el apartado a) si exigía su cumplimiento en el momento de adherirse al presente Tratado.

3) [Correcciones y plazos] Las modalidades y plazos para las correcciones previstas en los párrafos 1) y 2) se prescribirán en el Reglamento.

4) [Prohibición de otros requisitos] Ninguna Parte Contratante podrá exigir que se cumplan requisitos distintos de los mencionados en los párrafos 1) y 2) respecto de la fecha de presentación.

Artículo 6. Registro único para productos o servicios pertenecientes a varias clases

Cuando se hayan incluido en una solicitud única productos o servicios que pertenezcan a varias clases de la Clasificación de Niza, esa solicitud dará por resultado un registro único.

Artículo 7. División de la solicitud y del registro

1) [División de la solicitud].

a) Toda solicitud que enumere varios productos o servicios (denominada en adelante «solicitud inicial») podrá,

iv) erregistratzea eskatzen den markaren irudikapen aski argia;

v) erregistratzea eskatzen den produktu edo zerbitzuen zerrenda;

vi) tratatu honen 3.1)a)xvi) edo b) artikulua aplikagarria denean, 3.1)a)xvi) artikuluan aipaturiko deklarazioa edo 3.1)b) artikuluan aipaturiko deklarazioa eta frogak, hurrenez hurren, Alderdi Kontratugilearen legeriak ezarritakoaren arabera.

b) Alderdi Kontratugile batek a) letran aipaturiko oharpen eta elementu batzuk, ezen ez guztiak, Bulegoan jaso diren data esleitu ahal izango du eskaeraren aurkezpen-datatzat, edo 8.2) artikulua arabera galdaturikoaz besteko hizkuntza batean jaso diren data.

2) [Baimenduriko betekizun gehigarria]

a) Alderdi Kontratugile batek erabaki ahal izango du ez dela aurkezpen-datarik esleituko galdaturiko tasak ordaintzen ez diren bitartean.

b) Alderdi Kontratugile batek ezin galdatuko du a) letran aipaturiko betekizuna betetzea, tratatu honi atxiki zitzaion unean hura betetzea galdatzen ez bazuen.

3) [Zuzenketak eta epeak] 1) eta 2) zenbakietan zuzenketetarako aurreikusitako erak eta epeak Erregelamenduan zehaztuko dira.

4) [Beste betekizun batzuen debekua] Ezein Alderdi Kontratugilek ezin galdatuko du 1) eta 2) zenbakietan aipaturiko betekizunez bestelakorik betetzea aurkezpen-datarik dagokionez.

6. artikulua. Erregistro bakarra sail bateko baino gehiagoko produktu edo zerbitzuentzat

Nizako Sailkapeneko sail bateko baino gehiagoko produktu edo zerbitzuak eskaera bakar batean sartu direnean, eskaera horrek erregistro bakar bat sortuko du.

7. artikulua. Eskaera eta erregistroa zatitzea

1) [Eskaera zatitzea]

a) Zilegi izango da eskatzaileak edo haren eskariz produktu edo zerbitzu bat baino gehiago zerrendatzen dituen eskaera bat (aurrerantzean «hasierako eskaera» deitua) zatitzea,

- i) por lo menos hasta la decisión de la Oficina sobre el registro de la marca,
- ii) durante cualquier procedimiento de oposición contra la decisión de la Oficina de registrar la marca,
- iii) durante cualquier procedimiento de apelación contra la decisión relativa al registro de la marca,

ser dividida por el solicitante o a petición suya en dos o más solicitudes (denominadas en adelante «solicitudes fraccionarias»), distribuyendo entre estas últimas los productos o servicios enumerados en la solicitud inicial. Las solicitudes fraccionarias conservarán la fecha de presentación de la solicitud inicial y el beneficio del derecho de prioridad, si lo hubiere.

b) Sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado a), las Partes Contratantes tendrán libertad para establecer requisitos para la división de una solicitud, incluyendo el pago de tasas.

2) [División del registro] El párrafo 1) será aplicable, «mutatis mutandis», respecto de la división de un registro. Esa división deberá permitirse,

i) durante un procedimiento en el que un tercero impugne la validez del registro ante la Oficina,

ii) durante un procedimiento de apelación contra una decisión adoptada por la Oficina durante el procedimiento antes referido,

quedando entendido que una Parte Contratante podrá excluir la posibilidad de división del registro si su legislación nacional permite a terceros oponerse al registro de una marca antes de que se registre la misma.

Artículo 8. Comunicaciones

1) [Medios de transmisión y forma de las comunicaciones] Una Parte Contratante podrá elegir los medios de transmisión de las comunicaciones y si acepta comunicaciones en papel, comunicaciones en forma electrónica o en cualquier otra forma de comunicación.

2) [Idioma de las comunicaciones].

a) Una Parte Contratante podrá exigir que las comunicaciones se redacten en un idioma admitido por la Oficina. Cuando la Oficina admita más de un idioma, se podrá exigir al solicitante, titular u otra persona interesada que cumplan cualquier otro requisito relativo al idioma aplicable respecto de la Oficina,

- i) gutxienez Bulegoak markaren erregistroari buruz erabaki arte,
- ii) Bulegoak marka erregistratzeko hartutako erabakiaren kontrako zeinahi aurkakotza-prozedurak dirauen bitartean,
- iii) markaren erregistroari buruzko erabakiaren kontrako zeinahi apelazio-prozedurak dirauen bitartean,

bi eskaera edo gehiagotan (aurrerantzean «eskaera-zatidurak» deituak), eta haien artean banatzea hasierako eskaeran zerrendaturiko produktu edo zerbitzuak. Eskaera-zatidurek hasierako eskaeraren aurkezpen-data mantenduko dute, eta baita lehentasun-eskubidearen onura ere, halakorik bada.

b) Hargatik eragotzi gabe a) letran xedaturikoa, Alderdi Kontratugileek askatasuna izango dute eskaera bat zatitzeko betekizunak ezartzeko, tasak ordaintzea barne.

2) [Erregistroa zatitzea] Artikulu honen 1) zenbakia aplikagarria izango zaio, «mutatis mutandis», erregistro bat zatitzeari. Zatiketa hori une hauetan baimendu beharko da:

i) hirugarren batek Bulegoaren aurrean erregistroaren baliozkotasuna aurkaratzeko hasitako prozedurak dirauen bitartean;

ii) lehen aipaturiko prozeduran Bulegoak hartutako erabakiaren kontrako apelazio-prozedura batek dirauen bitartean,

jakintzat emanik Alderdi Kontratugile batek erregistroa zatitzeko aukera galarazi ahal izango duela, haren legeria nazionalak marka erregistratua izan aurretik marka erregistratzeari aurka egiteko baimena ematen badie hirugarrenei.

8. artikulua. Adierazpenak

1) [Adierazpenak igortzeko bideak eta forma] Alderdi Kontratugile batek esku izango du adierazpenak igortzeko bideak aukeratzeko eta ea paperean, forma elektronikoan edo beste zeinahi adierazpen-formatan igorritako adierazpenik onartzen duen erabakitzeko.

2) [Adierazpenen hizkuntza]

a) Alderdi Kontratugile batek esku izango du galdatzeko adierazpenak Bulegoak onarturiko hizkuntza batean egin daitezela. Bulegoak hizkuntza bat baino gehiago onartzen duenean, eskatzaileari, titularrari edo beste pertsona interesdun bati galdatu ahal izango zaio bete dezala Bulegoari dagokionez aplika-

siempre que no se exija que alguna indicación o elemento de la comunicación se redacte en más de un idioma.

b) Ninguna Parte Contratante podrá exigir la legitimación, certificación por fedatario público, autenticación, legalización o cualquier otra certificación de la traducción de una comunicación, salvo en lo previsto en el presente Tratado.

c) Cuando una Parte Contratante no exija que las comunicaciones se redacten en un idioma admitido por su Oficina, ésta podrá exigir que un traductor oficial o un representante presente en un plazo razonable una traducción de esa comunicación a un idioma admitido por la Oficina.

3) [Firma de las comunicaciones en papel].

a) Una Parte Contratante podrá exigir que una comunicación en papel esté firmada por el solicitante, titular u otra persona interesada. Cuando una Parte Contratante exija que una comunicación en papel esté firmada, deberá aceptar cualquier firma que cumpla los requisitos previstos en el Reglamento.

b) Ninguna Parte Contratante podrá exigir la legitimación, certificación por fedatario público, autenticación, legalización o cualquier otra certificación de una firma excepto cuando así lo disponga la legislación de la Parte Contratante si la firma se refiere a la renuncia a un registro.

c) No obstante lo dispuesto en el apartado b), una Parte Contratante podrá exigir que se presenten pruebas a la Oficina cuando ésta pueda dudar razonablemente de la autenticidad de una firma en una comunicación en papel.

4) [Comunicaciones presentadas en forma electrónica o por medios electrónicos de transmisión] Cuando una Parte Contratante permita la presentación de comunicaciones en forma electrónica o por medios electrónicos, podrá exigir que esas comunicaciones estén conformes con los requisitos previstos en el Reglamento.

5) [Presentación de una comunicación] Las Partes Contratantes aceptarán la presentación de toda comunicación cuyo contenido corresponda al del Formulario internacional tipo correspondiente previsto en el Reglamento, de haberlo.

6) [Prohibición de otros requisitos] Ninguna Parte Contratante podrá exigir que se cumplan, respecto de los párrafos 1) a 5), requisitos distintos de los mencionados en el presente artículo.

garria den beste zeinahi hizkuntza-betekizun, betiere adierazpenaren oharpen edo elementuren bat hizkuntza bat baino gehiagotan idaztea galdatzen ez bada.

b) Ezein Alderdi Kontratugilek ezin galdatuko du adierazpenaren itzulpena legitimatzea, fede-emaile publiko batek ziurtatzea, zinezkotzea, legeztatzea edo beste zeinahi erataraz ziurtatzea, salbu eta tratatu honetan aurreikusitako hartan.

c) Alderdi Kontratugile batek adierazpenak bere Bulegoak onarturiko hizkuntza batean idatz daitezela galdatzen ez duenean, Bulego horrek galdatu ahal izango du itzultzaile ofizial batek edo ordezkari batek aurkez dezala adierazpen hori, arrazoizko epe batean, Bulegoak onarturiko hizkuntza batera itzulita.

3) [Paperean igorritako adierazpenen sinadura]

a) Alderdi Kontratugile batek esku izango du galdatzeko eskatzaileak, titularrak edo beste pertsona interesdun batek sinaturik egon dadila paperean igorritako adierazpena. Alderdi Kontratugile batek, paperean igorritako adierazpena sinaturik egon dadila galdatzen duenean, Erregelamenduan aurreikusitako betekizunak betetzen dituen zeinahi sinadura onartu beharko du.

b) Ezein Alderdi Kontratugilek ezin galdatuko du sinadura bat legitimatzea, fede-emaile publiko batek ziurtatzea, zinezkotzea, legeztatzea edo beste zeinahi erataraz ziurtatzea, salbu eta Alderdi Kontratugilearen legeriak hala xedatzen badu sinadura erregistro bati uko egiteari buruzkoa den kasuan.

c) Zenbaki honen b) letran xedaturikoa gorabehera, Alderdi Kontratugile batek esku izango du galdatzeko Bulegoari frogak aurkez dakizkiola, Bulegoak arrazoizko zalantzak baditu paperean igorritako adierazpen bateko sinaduraren egiazkotasunaz.

4) [Forma elektronikoa edo igorpen-bide elektronikoz aurkezturiko adierazpenak] Alderdi Kontratugile batek, adierazpenak forma elektronikoa edo bide elektronikoz aurkeztea baimentzen duenean, adierazpen horiek Erregelamenduan aurreikusitako betekizunak bete ditzatela galdatu ahal izango du.

5) [Adierazpen bat aurkeztea] Alderdi Kontratugileek adierazpen orenen aurkezpena onartuko dute, haien edukia Erregelamenduan aurreikusitako nazioarteko ereduazko imprimakiaren arabera bada.

6) [Beste betekizun batzuen debekua] Ezein Alderdi Kontratugilek ezin galdatuko du artikulua honetan aipaturikoez besteko betekizunik betetzea 1)etik 5)era arteko zenbakieiei dagokienez.

7) [Medio de comunicación con los representantes] Nada de lo dispuesto en el presente artículo regula el medio de comunicación entre el solicitante, el titular u otra persona interesada y su representante.

Artículo 9. Clasificación de productos y servicios

1) [Indicaciones de productos y servicios] Cada registro y cualquier publicación efectuados por una Oficina que se refieran a una solicitud o a un registro y en que se indiquen productos o servicios, deberán designar los productos o servicios por sus nombres, agrupándolos según las clases de la Clasificación de Niza, y cada grupo deberá ir precedido por el número de la clase de esa Clasificación a la que pertenezca ese grupo de productos o servicios y estar presentado en el orden de las clases de esa Clasificación.

2) [Productos o servicios en la misma clase o en clases diferentes].

a) Los productos o servicios no podrán considerarse similares entre sí por razón de que, en un registro o publicación de la Oficina, figuren en la misma clase de la Clasificación de Niza.

b) Los productos o servicios no podrán considerarse diferentes entre sí por razón de que, en un registro o publicación de la Oficina, figuren en clases diferentes de la Clasificación de Niza.

Artículo 10. Cambios en los nombres o en las direcciones

1) [Cambios en el nombre o en la dirección del titular].

a) Cuando no haya cambio en la persona del titular, pero sí lo haya en su nombre o en su dirección, una Parte Contratante aceptará que la petición de inscripción del cambio por la Oficina en su registro de marcas sea formulada por el titular en una comunicación en la que se indique el número del registro en cuestión y el cambio que se ha de registrar.

b) Una Parte Contratante podrá exigir que en la petición se indique:

i) El nombre y la dirección del titular;

ii) cuando el titular tenga un representante, el nombre y la dirección de ese representante;

iii) cuando el titular tenga una dirección para notificaciones, esa dirección.

7) [Ordezkariekin komunikatzeko bidea] Artikulu honetan xedaturiko ezerk ez du arautzen eskatzailearen, titularraren edo beste pertsona interesdun baten eta haren ordezkariaren arteko komunikazio-bidea.

9. artikulua. Produktu eta zerbitzuen sailkapena

1) [Produktu eta zerbitzuak adieraztea] Bulegoak egindako erregistro bakoitzak eta zeinahi argitalpenek, eskaera edo erregistro bati buruzkoak badira eta produktuak edo zerbitzuak adierazten badituzte, produktu edo zerbitzuak beren izenez adierazi beharko dituzte, Nizako Sailkapeneko sailen arabera multzokaturik, eta multzo bakoitza produktu edo zerbitzu horiei Sailkapenean dagoen sailaren zenbakia aurrean duela aurkeztu beharko da, Sailkapen horretako sailen hurrenkeran.

2) [Produktu edo zerbitzuak sail berean edo sail bat baino gehiagotan sailkatzea]

a) Ezin joko da produktu edo zerbitzuak elkarren antzekoak direnik Bulegoaren erregistro zein argitalpen batean Nizako Sailkapeneko sail berean agertzen direlako.

b) Ezin joko da produktu edo zerbitzuak elkarrengandik desberdinak direnik Bulegoaren erregistro zein argitalpen batean Nizako Sailkapeneko sail batean baino gehiagotan agertzen direlako.

10. artikulua. Aldaketak izenetan edo helbideetan

1) [Aldaketak titularraren izenean edo helbidean]

a) Titularraren pertsonan aldaketarik ez dagoenean, baina bai haren izenean edo helbidean, Alderdi Kontratugile batek ontzat hartuko du titularrak adierazpen batean egitea Bulegoak marken erregistroan aldaketa inskribatzeko eskaria, adierazpenean adieraziz delako erregistroaren zenbakia eta erregistratu beharreko aldaketa.

b) Alderdi Kontratugile batek esku izango du galdatzeko eskarian adieraz daitezela:

i) Titularraren izena eta helbidea;

ii) titularrak ordezkari bat duenean, ordezkari horren izena eta helbidea;

iii) titularrak jakinarazpenetarako helbide bat duenean, helbide hori.

c) Una Parte Contratante podrá exigir que, respecto de la petición, se pague una tasa a la Oficina.

d) Bastará con una petición única aun cuando la modificación se refiera a más de un registro, siempre que en la petición se indiquen los números de todos los registros en cuestión.

2) [Cambio en el nombre o en la dirección del solicitante] El párrafo 1) se aplicará, «mutatis mutandis», cuando el cambio se refiera a una o más solicitudes, o a una o más solicitudes y registros; sin embargo, cuando el número de una solicitud aún no se haya asignado o no sea conocido por el solicitante o su representante, se deberá identificar de otro modo esa solicitud en la petición según lo previsto en el Reglamento.

3) [Cambio en el nombre o en la dirección del representante o en la dirección para notificaciones] El párrafo 1) se aplicará, «mutatis mutandis», a cualquier cambio en el nombre o en la dirección del representante, en su caso, y a cualquier cambio relativo a la dirección para notificaciones, en su caso.

4) [Prohibición de otros requisitos] Ninguna Parte Contratante podrá exigir que se cumplan requisitos distintos de los mencionados en los párrafos 1) a 3) y en el artículo 8 respecto de la petición mencionada en este artículo. En particular, no podrá exigir que se le proporcione ningún tipo de certificado relativo al cambio.

5) [Pruebas] Una Parte Contratante podrá exigir que se presenten pruebas a la Oficina cuando ésta pueda dudar razonablemente de la veracidad de cualquier indicación contenida en la petición.

Artículo 11. Cambio en la titularidad

1) [Cambio en la titularidad del registro].

a) Cuando se haya producido un cambio en la persona del titular, una Parte Contratante aceptará que la petición de inscripción del cambio por la Oficina en su registro de marcas sea formulada por el titular o por la persona que haya adquirido la titularidad (denominado en adelante «el nuevo propietario») en una comunicación en la que se indique el número del registro en cuestión y el cambio que se ha de inscribir.

b) Cuando el cambio en la titularidad sea el resultado de un contrato, una Parte Contratante podrá exigir que la petición indique ese hecho y vaya acompañada, a elección de la parte peticionaria, de uno de los siguientes elementos:

c) Alderdi Kontratugile batek esku izango du galdatzeko tasa bat ordain dakiola Bulegoari eskariari dagokionez.

d) Aldaketa erregistro bati baino gehiagori buruzkoa denean ere aski izango da eskari bakar bat, eskarian direlako erregistro guztien zenbakiak adierazten badira betiere.

2) [Aldaketa eskatzailearen izenean edo helbidean] Artikulu honen 1) zenbakia aplikatuko da, «mutatis mutandis», aldaketa eskaera bati edo gehiagori buruzkoa denean, edo eskaera eta erregistro bati baino gehiagori buruzkoa denean; hala ere, eskaera baten zenbakia esleitu gabe dagoenean edo eskatzaileak zein haren ordezkariak zenbakia ezagutzen ez dutenean, eskaera hori beste modu batera identifikatu beharko da eskarian, Erregelamenduan aurreikusitakoaren arabera.

3) [Aldaketa ordezkariaren izen edo helbidean zein jakinarazpenetarako helbidean] Artikulu honen 1) letra aplikatuko zaio, «mutatis mutandis», ordezkariaren izen edo helbidean izandako zeinahi aldaketari, ordezkariarik bada, bai eta jakinarazpenetarako helbideari buruzko zeinahi aldaketari ere, halako helbiderik bada.

4) [Beste betekizun batzuen debekua] Ezein Alderdi Kontratugilek ezin galdatuko du 1) zenbakitik 3) zenbakira artekoetan eta 8. artikuluan aipaturikoez besteko betekizunik betetzea artikulu honetan aipaturiko eskariari dagokionez. Bereziki, ezin galdatuko du aldaketari buruzko ezein ziurtagiri aurkeztea.

5) [Frogak] Alderdi Kontratugile batek Bulegoari frogak aurkez dakizkiola galdatu ahal izango du, Bulegoak arrazoizko zalantzak baditu eskarian agertzen den zeinahi oharpenen egiazkotasunaz.

11. artikulua. Aldaketa titulartasunean

1) [Aldaketa erregistroaren titulartasunean]

a) Titularraren pertsona aldaketa bat izan denean, Alderdi Kontratugile batek ontzat hartuko du titularrak edo titulartasuna eskuratu duen pertsonak (aurrerantzean «jabe berria» deitua) adierazpen batean egitea Bulegoak marken erregistroan aldaketa inskribatzeko eskaria, adierazpenean adieraziz delako erregistroaren zenbakia eta erregistratu beharreko aldaketa.

b) Titulartasunean izaniko aldaketa kontratu baten ondorio denean, Alderdi Kontratugile batek esku izango du galdatzeko hori eskarian adieraz dadila eta, eskariarekin batera, elementu hauetariko bat aurkez dadila, alderdi eskarigilearen aukeran:

i) Una copia del contrato, respecto de la cual podrá exigirse que un fedatario público o cualquier otra autoridad pública competente certifique su conformidad con el contrato original;

ii) un extracto del contrato en el que figure el cambio de titularidad, respecto del cual podrá exigirse que un fedatario público o cualquier otra autoridad pública competente certifique que es un extracto auténtico del contrato;

iii) un certificado de transferencia, sin certificación, en la forma y con el contenido previstos en el Reglamento, y firmado tanto por el titular como por el nuevo propietario;

iv) un documento de transferencia, sin certificación, en la forma y con el contenido previstos en el Reglamento, y firmado tanto por el titular como por el nuevo propietario.

c) Cuando el cambio en la titularidad sea el resultado de una fusión, una Parte Contratante podrá exigir que la petición indique ese hecho y vaya acompañada de una copia del documento que pruebe la fusión, emitido por la autoridad competente, por ejemplo la copia de un extracto del registro de comercio, y que la autoridad que emitió el documento, o un fedatario público o cualquier otra autoridad pública competente, certifique su conformidad con el documento original.

d) Cuando haya un cambio en la persona de uno o varios cotitulares, pero no en todos ellos, y tal cambio de titularidad sea el resultado de un contrato o una fusión, una Parte Contratante podrá exigir que todo cotitular, respecto del que no haya habido cambio en la titularidad, dé su consentimiento expreso al cambio de titularidad en un documento firmado por él.

e) Cuando el cambio en la titularidad no sea el resultado de un contrato ni de una fusión, sino que resulte, por ejemplo, de la aplicación de la ley o de una decisión judicial, una Parte Contratante podrá exigir que la petición indique ese hecho y vaya acompañada de una copia de un documento que pruebe el cambio, y que la autoridad pública que emitió el documento, o un fedatario público o cualquier otra autoridad pública competente, certifique su conformidad con el documento original.

f) Una Parte Contratante podrá exigir que en la petición se indique:

i) El nombre y la dirección del titular;

ii) el nombre y la dirección del nuevo propietario;

i) Kontratuaren kopia bat, zeinari buruz galdatu ahal izango baita fede-emaile publiko batek edo beste zeinahi agintari publiko eskudunek ziurta dezala jatorrizko kontratuarekin bat datorrela;

ii) kontratuaren laburpen bat, titulartasun-aldaketa jasotzen duena, zeinari buruz galdatu ahal izango baita fede-emaile publiko batek edo beste zeinahi agintari publiko eskudunek ziurta dezala kontratuaren benetako laburpen bat dela;

iii) eskualdaketaren ziurtagiri bat, ziurtapenik gabe, Erregelamenduan aurreikusitako forma eta edukia dituena, hala titularrak nola jabe berriak izenpetua;

iv) eskualdaketaren agiri bat, ziurtapenik gabe, Erregelamenduan aurreikusitako forma eta edukia dituena, hala titularrak nola jabe berriak izenpetua.

c) Titulartasunean izaniko aldaketa bat-egite baten ondorio denean, Alderdi Kontratugile batek esku izango du galdatzeko hori eskarian adieraz dadila eta, eskariarekin batera, bat-egitea frogatzen duen agiriaren kopia bat —agintari eskudun batek emana— aurkez dadila (adibidez, merkataritzako erregistroko laburpen bat), eta agiria eman zuen agintariak, edota fede-emaile publiko batek zein beste zeinahi agintari publiko eskudunek ziurta dezala kopia jatorrizko agiriarekin bat datorrela.

d) Titularkide baten edo gehiagoren pertsonan, baina ez denetan, aldaketa bat dagoenean eta titulartasun-aldaketa hori kontratu baten edo bat-egite baten ondorio denean, Alderdi Kontraugile batek esku izango du galdatzeko titulartasunean aldaketarik izan ez duen titularkide orok titulartasun-aldaketari baimen espresua eman diezaiola berak izenpeturiko agiri batean.

e) Titulartasunean izaniko aldaketa kontratu baten edo bat-egite baten ondorio ez denean, baizik eta, adibidez, legea edo epaile baten erabakia aplikatzearen emaitza, Alderdi Kontratugile batek esku izango du galdatzeko hori eskarian adieraz dadila eta, eskariarekin batera, aldaketa frogatzen duen agiri baten kopia bat aurkez dadila, eta agiria eman zuen agintari publikoak, edota fede-emaile publiko batek zein beste zeinahi agintari publiko eskudunek ziurta dezala kopia jatorrizko agiriarekin bat datorrela.

f) Alderdi Kontratugile batek esku izango du galdatzeko eskarian adieraz daitezela:

i) Titularraren izena eta helbidea;

ii) jabe berriaren izena eta helbidea;

iii) el nombre de un Estado del que sea nacional el nuevo propietario, si éste es nacional de algún Estado, el nombre de un Estado en que el nuevo propietario tenga su domicilio, de tenerlo, y el nombre de un Estado en que el nuevo propietario tenga un establecimiento industrial o comercial real y efectivo, de tenerlo;

